Garaje eta aparkaleku erabilerak, oro har, bizitegi erabilera, industria erabilera, hirugarren sektoreko erabilera eta ekipamendu komunitarioko erabilera erabilera osagarritzat joko dira. Nolanahi ere, hala gertatzen denean, dagokion zerbitzu nagusiaren hornikuntza premietara egokitu beharko da lursail horretan gehienez gara daitezkeen aparkalekuen edo garaje plazen kopurua.

F. Trenbide erabilerak trenbideak eta horien erabilera osagarriak biltzen ditu, geltokiak eta geralekuak barne, eta etxebizitza eta mota guztietako lantegiak baztertuta.

G. Portuko erabilerak dira Interes Orokorreko Portuen Araubide Ekonomikoari eta Zerbitzuak Emateari buruzko 48/2003 Legearen 94. artikuluan arautzen diren erabilerak:

a) Merkataritzako erabilerak, horien artean direla garraio motak aldatzearekin zerikusia dutenak, oinarritzko portuko zerbitzuen ingurukoak eta merkataritzako beste portu jardura batzuk.

b) Arrantza erabilerak.

c) Nautika eta kirol erabilerak.

d) Aurrekoen osagarri edo laguntzaile diren erabilerak, horien artean direla logistika eta biltegiatze jardueren ingurukoak eta industria nahiz merkataritza enpresei dagozkien erabi-

B. El uso de circulación ciclista consiste en la actividad de desplazamiento mediante la bicicleta.

Tiene en todo caso el carácter de uso de servicio básico y se considerará autorizado en la totalidad de las zonas de uso global sin necesidad de que dicha circunstancia se señale de manera expresa.

C. El uso de circulación rodada motorizada consiste en la actividad de desplazamiento mediante mecanismos y medios motorizados, tanto públicos (transporte público en su sentido más amplio, incluido el taxi) como privados (coche y moto preferentemente). Se excluyen de esta modalidad medios de movilidad como las sillas de rueda motorizadas u otros asimilables a éstas, que se integran en la de uso de circulación peatonal.

Tiene en todo caso el carácter de uso de servicio básico y se considerará autorizado en la totalidad de las zonas de uso global sin necesidad de que dicha circunstancia se señale de manera expresa.

D. Se entiende por aparcamiento el estacionamiento de vehículos al aire libre en espacios de dominio público o privado.

E. Se entiende por garaje la guarda de vehículos en espacios cubiertos y fundamentalmente cerrados, tanto sobre como bajo rasante. En el uso de garaje se diferencian dos categorías en función de la superficie del local ocupado:

* Categoría «1ª»: < 400 m²(t).

* Categoría «2ª»: > 400 m²(t).

Asimismo en el uso de garaje se establecen las variantes de garajes de uso privado, y garajes de uso público. Se considerarán como de garajes de uso privado aquellos garajes que se utilicen de manera exclusiva por sus propietarios, o por otras personas autorizadas por ellos de forma directa; y como garajes de uso público aquellos que se destinen a su utilización por el público en general, en condiciones de libre acceso, ya sea de forma gratuita u onerosa.

Se consideran auxiliares del uso de garaje los de aseos, cuartos de instalaciones y otros similares, así como las instalaciones de lavado de vehículos. No así los usos de suministro de combustible, estación de servicio y los talleres de reparación.

Los usos de garaje y aparcamiento se considerarán, con carácter general, usos auxiliares de los usos residenciales, industriales, terciarios y de equipamiento comunitario, si bien, en tal caso, el número máximo de plazas de aparcamiento o garaje a desarrollar en la parcela correspondiente se deberá adecuar a las necesidades de dotación de los usos principales a los que den servicio.

F. El uso ferroviario comprende las vías férreas y los usos auxiliares de las mismas, incluidas las estaciones y apeaderos, y excluidas la vivienda y los talleres de todo tipo.

G. Los Usos Portuarios comprenden los usos regulados en el artículo 94 de la Ley 48/2003, de Régimen Económico y de Prestación de Servicios de los Puertos de Interés General:

a) Usos comerciales, entre los que figuran los relacionados con el intercambio entre modos de transporte, los relativos al desarrollo de servicios portuarios básicos y otras actividades portuarias comerciales.

b) Usos pesqueros.

c) Usos náutico-deportivos.

d) Usos complementarios o auxiliares de los anteriores, incluidos los relativos a actividades logísticas y de almacenaje y los que correspondan a empresas Industriales o comerciales

lerak, halakoak portuan kokatzea justifikatuta dagoenean, horiek portuko trafikorekin lotura izateagatik, sortzen dituzten portuko trafikoen kopuruarengatik edo portuko erabiltzaileei ematen dizkieten zerbitzuengatik.

5. Espazio libreen erabilerak.

Espazio libreen erabilera jendearen aisialdira eta astialdira, elementu naturalak mantentzera eta gisa bereko jardueretara zuzendutako jabari publikoko eta sarrera libreko espazioei dagokien erabilera da. Salbuespen berezietan izan ezik, erakuntza garapenak eta komunikazio sareko instalazioak edo elementuak —errepideak, aparkalekuak eta antzeko beste batzuk— baztertua daude.

Salbuespen horiek honako hauek finkatzeko eta/edo aurreikusteko aukerarekin zerikusia dute ekipamendu erabileretara zuzendutako lursailak eta erakuntzak sistema orokorren sarean integratutako espazio libreetan: Oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideen sareak espazio libre orokorretan eta tokikoetan; espazio libreen berezko erabileraren erakuntza eta instalazio osagarriak.

Honako modalitateak bereizten dira:

- * Hiri espazio libreen erabilera.
- * Landa espazio libreen erabilera.
- * Lurralde elementuen erabilera.

A. Hiri espazio libreen erabilera berezkoa da hiri eremuan kokatzen diren espazio libre publikoetan. Herritarren aisialdira eta lasaialdira zuzentzen dira, landare tratamendua eta/edo tratamendu naturala izan dezakete, edo urbanizazio artifiziala —plazak, oinezkoen eremuak, jolas eremuak, pasealekuak, lorategiak eta parkeak—, eta arestian adierazitako salbuespenekin, eraikiezinak dira; eraikuntzak edo azpiegiturak babesteko espazioetan; beren hondar izaeragatik eraikiezinak diren eta bestelako erabileraren bati loturik ez dauden espazioetan; eta aurrekoen antzeko izaera eta xedeak dituzten beste espazio batzuetan.

Espazio libreen erabilera osagarritzat jotzen dira lorategiak mantentzeko erabilerak —makineria, lanabesak eta materiala gordetzea, eta antzeko beste batzuk— eta erabiltzaileei zerbitzu egitekoak —komun publikoak, eta antzeko beste batzuk—.

Hiri espazio libreen erabilerak, nolahi ere, oinarritzko zerbitzu erabileren izaera edukiko du, eta erabilera orokorreko gune guztietan zuzenean baimendutzat hartuko da, zirkunstantzia hori espresuki aditzera eman beharrik gabe.

B. Landa espazio libreen erabilerak herritarren landa ingurunean aisialdia eta lasaialdia biltzen ditu.

Landa espazio libreen erabilera osagarritzat jotzen dira espazio horiek mantentzeko erabilerak eta aisialdiko eta lasaialdiko xede horietara zuzentzearen ikuspegitik justifikatuta daudenak.

C. Lurralde elementuen erabilera izaera hori nagusi duten lurraldeko elementu naturalei lotutakoa da: Ibai ibilguak, mendialdeak, parke naturalak, interes naturalistikoko eremuak eta abar.

6. Ekipamendu komunitarioko erabilerak.

Ekipamendu komunitarioko erabilerak biztanleentzako zerbitzuetako jarduerak dira, erakunde publikoek edo pribatuek irabazizko asmorik gabe eginak.

cuya localización en el puerto esté justificada por su relación con el tráfico portuario, por el volumen de los tráficos marítimos que generan o por los servicios que prestan a los usuarios del puerto.

5. Usos de Espacios Libres.

El uso de espacios libres es el propio de los espacios de dominio público y libre acceso destinados al ocio y esparcimiento de la población, al mantenimiento de elementos naturales, etc. Se excluyen, salvo excepciones singulares, tanto los desarrollos edificatorios como instalaciones o elementos de la red de comunicaciones —carreteras, aparcamientos y otros similares—.

Dichas excepciones están relacionadas con la posible consolidación y/o previsión de parcelas y edificaciones destinadas a usos de equipamiento en espacios libres integrados en la red de sistemas generales: Redes de itinerarios peatonales y ciclistas en espacios libres generales y locales; edificaciones e instalaciones complementarias y/o auxiliares del uso propio de los espacios libres; usos de explotación agraria, incluidos los auxiliares de los mismos en espacios libres rurales.

Se distinguen las siguientes modalidades:

- * Uso de espacios libres urbanos.
- * Uso de espacios libres rurales.
- * Uso de elementos territoriales.

A. El uso de espacios libres urbanos es el propio de los espacios libres públicos situados en el ámbito urbano, destinados al ocio y expansión de la población, susceptibles bien de un tratamiento vegetal y/o natural, bien de urbanización artificial —plazas, áreas peatonales, áreas de juego, paseos, jardines y parques—, y que, con las salvedades antes comentadas, no son edificables; los espacios de protección de construcciones o infraestructuras; los espacios públicos no edificables por su carácter residual, ni vinculados a otro tipo de usos y otros espacios de naturaleza y fines similares a los anteriores.

Se consideran usos auxiliares de los espacios libres los de mantenimiento de la jardinería —guarda de maquinaria, aperos y material y otros similares— y servicio a los usuarios —aseos públicos y otros similares—.

El uso de espacios libres urbanos tiene en todo caso el carácter de uso de servicio básico y se considerará directamente autorizado en la totalidad de las zonas de uso global sin necesidad de que esta circunstancia se señale de forma expresa.

B. El uso de espacios libres rurales es el correspondiente a los terrenos de dominio público destinados al ocio y expansión de la población en el medio rural.

Se consideran usos auxiliares de los espacios libres rurales, tanto los de mantenimiento de los mismos como los justificados desde la perspectiva de su destino a los indicados fines de ocio y expansión de la población.

C. El uso de elementos territoriales es el vinculado a los elementos naturales del territorio en los que prevalece éste carácter, como es el caso de los cauces fluviales, las zonas de montaña, los parques naturales, las áreas de interés naturalístico, etc.

6. Usos de equipamiento comunitario.

Los usos de equipamiento comunitario comprenden las actividades de servicio a la población, ejercidas sin fines de lucro por entidades públicas o privadas.

Ildo horretan, Udalak kalifikatu jo izango du erakunde pribatu baten jarduera jakin bat ekipamendu komunitariotzat, aurretik baloratu zergo jarduera hori laguntzakoa eta zerbitzu publikoa dela eta ez dela irabazizkoa.

Irabazizkotzat joz gero, hirugarren erabilerakoa izango da edo, hala badagokio, bizitegikoa. Tokiko sistemen eta, hala badagokio, sistema orokorren sareko ekipamendu pribatuen hornikuntzaren arloan indarrean dagoen legedian aurreikusitako estandarra betetzearen ondorioetarako hiri plangintzan antolatu beharreko erabilerak nahiz ekipamendu pribatuko edo ondare ekipamenduko erabileratzat nahiz hirugarren sektoreko erabileratzat hartu eta tratatu ahal izango dira.

Honako modalitate hauek ezartzen dira ekipamendu komunitarioko erabileren artean:

- * Irakaskuntza ekipamenduko erabilera.
- * Kirol ekipamenduko erabilera.
- * Erakunde ekipamenduko erabilera.
- * Osasun ekipamenduko erabilera.
- * Laguntza ekipamenduko erabilera.
- * Ekipamendu soziokulturaleko erabilera.
- * Jolas ekipamenduko erabilera.
- * Erljio ekipamenduko erabilera.
- * Zerbitzu publikoen ekipamenduko erabilera.

A. Irakaskuntza ekipamenduko erabilerak irakaskuntza biltzen du, modalitate guztietan, titulartasun publikoko erregimenean eta irabazi asmorik gabe gauzatua.

Halakotzat jo daiteke, halaber, titulartasun pribatuko erregimenean gauzatutako irakaskuntza jarduera, bereziki tokiko sistemen eta, hala badagokio, sistema orokorren sareko ekipamendu pribatuen hornikuntzaren arloan indarrean dagoen legedian aurreikusitako estandarrean integra daitekeena. Kasu horretan, erabilera hori modalitate bereko hirugarren sektoreko erabilerarekin parekatu ahal izango da, eta irabazizko izaera duela ulertuko da kasu orotan. Bi kasuetan, dagozkien erabilera osagarriak ere erabilera horretan integratzen dira.

B. Kirol ekipamenduko erabileran kirol praktika eta gorputz kultura biltzen dira, modalitate guztietan, baita beraien irakaskuntza ere, hala eraikinetan, nola espresuki horretarako egokitutako espazio libreetan, titulartasun publikoko erregimenean eta irabazi asmorik gabe gauzatua.

Halakotzat jo daiteke, halaber, titulartasun pribatuko edo ondare titulartasuneko erregimenean gauzatutako kirol jarduera, bereziki tokiko sistemen eta, hala badagokio, sistema orokorren sareko ekipamendu pribatuen hornikuntzaren arloan indarrean dagoen legedian aurreikusitako estandarrean integra daitekeena. Kasu horretan, erabilera hori modalitate bereko hirugarren sektoreko erabilerarekin parekatu ahal izango da, eta irabazizko izaera duela ulertuko da kasu orotan. Bi kasuetan, dagozkien erabilera osagarriak ere erabilera horretan integratzen dira.

C. Erakunde ekipamenduko erabilerak izaera publikoko erakunde erabilerak eta erabilera administratiboak biltzen ditu. Horien artean administrazio publikoaren erakunde guztien bulegoak, ertzain etxeak eta bestelako polizia etxeak eta posta bulegoak aintzat hartuko dira, baita, kasu guztietan, horiei dagozkien erabilera osagarriak ere.

D. Osasun ekipamenduko erabilerak gaixoei ospitale, anbulatorio, klinika, dispensario, kontsultategi eta antzekoetan tratamendua eta ostatua ematea biltzen du, titulartasun publiko erregimenean eta irabazi asmorik gabe gauzatuak.

En ese sentido, el Ayuntamiento podrá calificar una determinada actividad ejercida por una entidad privada como equipamiento comunitario, previa valoración del carácter fundamentalmente asistencial, de servicio público, y no lucrativo, de la misma.

En caso de considerarse como lucrativa se tipificará como uso terciario, o, en su caso, residencial. Los usos a ordenar en el planeamiento urbanístico a los efectos de cumplir el estándar previsto en la legislación vigente en materia de dotación de equipamiento privado de la red de sistemas locales, y, en su caso, generales, podrán ser considerados y tratados bien como usos de equipamiento privado o patrimonial, bien como usos terciarios.

Se establecen las siguientes modalidades de usos de equipamiento comunitario:

- * Uso de equipamiento docente.
- * Uso de equipamiento deportivo.
- * Uso de equipamiento institucional.
- * Uso de equipamiento sanitario.
- * Uso de equipamiento asistencial.
- * Uso de equipamiento sociocultural.
- * Uso de equipamiento recreativo.
- * Uso de equipamiento religioso.
- * Uso de equipamiento de servicios públicos.

A. El uso de equipamiento docente comprende la enseñanza, en todas sus modalidades, ejercida en régimen de titularidad pública y privada sin ánimo de lucro.

Cabe también considerar como tal la actividad de enseñanza ejercida en régimen de titularidad privada, en particular la que, en su caso, pueda integrarse en el estándar previsto en la legislación vigente en materia de dotación de equipamiento privado de la red de sistemas locales y, en su caso, generales. En este supuesto, dicho uso será asimilable al uso terciario de esa misma modalidad, y se entenderá en todo caso que tiene carácter lucrativo. En ambos casos, se integran en dicho uso los correspondientes usos auxiliares.

B. El uso de equipamiento deportivo comprende la práctica deportiva y la cultura física en todas sus modalidades, y su enseñanza, tanto en edificios como en espacios libres acondicionados de forma expresa para ello, ejercido sin fines de lucro en régimen de titularidad pública.

Cabe también considerar como tal la actividad deportiva ejercida en régimen de titularidad privada o patrimonial, en particular la que, en su caso, pueda integrarse en el estándar previsto en la legislación vigente en materia de dotación de equipamiento privado de la red de sistemas locales y, en su caso, generales. En este supuesto, dicho uso será asimilable al uso terciario de esa misma modalidad, y se entenderá en todo caso que tiene carácter lucrativo. En ambos casos, se integran en dicho uso los correspondientes usos auxiliares.

C. El uso de equipamiento institucional comprende los usos institucionales y administrativos de carácter público. Entre ellos se considerarán las oficinas de Correos que no incluyan funciones incompatibles con la contigüidad o proximidad a otros usos, así como, en todos los casos, los usos auxiliares correspondientes.

D. El uso de equipamiento sanitario comprende el tratamiento y alojamiento de enfermos en hospitales, ambulatorios, clínicas, dispensarios, consultorios y similares, ejercido sin fines de lucro en régimen de titularidad pública.

Halakotzat jo daiteke, halaber, titulartasun pribatuko edo ondare titulartasuneko erregimenean gauzatutako osasun jarduera, bereziki tokiko sistemen eta, hala badagokio, sistema orokorren sareko ekipamendu pribatuen hornikuntzaren arloan indarrean dagoen legedian aurreikusitako estandarrean integra daitekeena. Kasu horretan, erabilera hori modalitate bereko hirugarren sektoreko erabilerarekin parekatu ahal izango da, eta irabazizko izaera duela ulertuko da kasu orotan. Bi kasuetan, dagozkien erabilera osagarriak ere erabilera horretan integratzen dira.

E. Laguntza ekipamenduko erabilerak, besteak beste, biztanleriaren sektore ezinduei ostatu emateko eta laguntzeko erabilerak biltzen ditu, hala nola erretiratuen etxeak edo zaharren eta balia biderik gabeko pertsonen eta are gazteen egoitzak ere, titulartasun publikoko erregimenean eta irabazi asmorik gabe gauzatuak.

Halakotzat jo daiteke, halaber, titulartasun pribatuko edo ondare titulartasuneko erregimenean gauzatutako laguntza jarduera, bereziki tokiko sistemen eta, hala badagokio, sistema orokorren sareko ekipamendu pribatuen hornikuntzaren arloan indarrean dagoen legedian aurreikusitako estandarrean integra daitekeena. Kasu horretan, erabilera hori modalitate bereko hirugarren sektoreko erabilerarekin parekatu ahal izango da, eta irabazizko izaera duela ulertuko da kasu orotan. Bi kasuetan, dagozkien erabilera osagarriak ere erabilera horretan integratzen dira.

F. Ekipamendu soziokulturaleko erabilerak irabazi asmorik gabe egiten diren kultur sustapeneko edo arte sorkuntzako jarduerak biltzen ditu, hala nola liburutegietan, museoetan, erakusketa aretoetan, hitzaldi aretoetan, kongresu aretoetan, musika entzunaretoetan eta bestelakoetan egiten direnak, titulartasun publikoko erregimenean eta irabazi asmorik gabe gauzatuak.

Halakotzat jo daiteke, halaber, titulartasun pribatuko edo ondare titulartasuneko erregimenean gauzatutako jarduera soziokulturala, bereziki tokiko sistemen eta, hala badagokio, sistema orokorren sareko ekipamendu pribatuen hornikuntzaren arloan indarrean dagoen legedian aurreikusitako estandarrean integra daitekeena. Kasu horretan, erabilera hori modalitate bereko hirugarren sektoreko erabilerarekin parekatu ahal izango da, eta irabazizko izaera duela ulertuko da kasu orotan. Bi kasuetan, dagozkien erabilera osagarriak ere erabilera horretan integratzen dira.

G. Jolas ekipamenduko erabileraren barruan antzokiak, zinemak, jolas parkeak eta irabazi asmorik gabe eta titulartasun publikoko erregimenean gauzatutako bestelako atsedendiko erabilerak biltzen dira.

Halakotzat jo daiteke, halaber, titulartasun pribatuko edo ondare titulartasuneko erregimenean gauzatutako jolas jarduera, bereziki tokiko sistemen eta, hala badagokio, sistema orokorren sareko ekipamendu pribatuen hornikuntzaren arloan indarrean dagoen legedian aurreikusitako estandarrean integra daitekeena. Kasu horretan, erabilera hori modalitate bereko hirugarren sektoreko erabilerarekin parekatu ahal izango da, eta irabazizko izaera duela ulertuko da kasu orotan. Bi kasuetan, dagozkien erabilera osagarriak ere erabilera horretan integratzen dira.

H. Erljio ekipamenduko erabileren artean daude erlijio katolikoko eliza, baseliza, kapera eta parroquia zentroetan garatzen diren kultu edo erlijio heziketarako jarduerak, eta beste erlijio batzuetako zentroetan gara daitezkeenak, baita dagozkien erabilera osagarriak ere.

Cabe también considerar como tal la actividad sanitaria ejercida en régimen de titularidad privada o patrimonial, en particular la que, en su caso, pueda integrarse en el estándar previsto en la legislación vigente en materia de dotación de equipamiento privado de la red de sistemas locales y, en su caso, generales. En este supuesto, dicho uso será asimilable al uso terciario de esa misma modalidad, y se entenderá en todo caso que tiene carácter lucrativo. En ambos casos, se integran en dicho uso los correspondientes usos auxiliares.

E. El uso de equipamiento asistencial comprende, entre otros, los usos de alojamiento y asistencia a sectores de población desvalidos, como los hogares de jubilados o las residencias de ancianos y personas desvalidas, incluso jóvenes, ejercidos sin fines lucrativos en régimen de titularidad pública.

Cabe también considerar como tal la actividad asistencial ejercida en régimen de titularidad privada o de carácter patrimonial, en particular la que, en su caso, pueda integrarse en el estándar previsto en la legislación vigente en materia de dotación de equipamiento privado de la red de sistemas locales y, en su caso, generales. En este supuesto, dicho uso será asimilable al uso terciario de esa misma modalidad, y se entenderá en todo caso que tiene carácter lucrativo. En ambos casos, se integran en dicho uso los correspondientes usos auxiliares.

F. El uso de equipamiento sociocultural comprende las actividades de promoción cultural o creación artística, como las ejercidas en bibliotecas, museos, salas de exposiciones, conferencias o congresos, los auditorios de música y otros, desarrollados sin fines de lucro en régimen de titularidad pública.

Cabe también considerar como tal la actividad sociocultural ejercida en régimen de titularidad privada o de carácter patrimonial, en particular la que, en su caso, pueda integrarse en el estándar previsto en la legislación vigente en materia de dotación de equipamiento privado de la red de sistemas locales y, en su caso, generales. En este supuesto, dicho uso será asimilable al uso terciario de esa misma modalidad, y se entenderá en todo caso que tiene carácter lucrativo. En ambos casos, se integran en dicho uso los correspondientes usos auxiliares.

G. El uso de equipamiento recreativo comprende los usos de teatros, cines, los parques de atracciones y recreativos, y otros usos de esparcimiento ejercidos sin fines lucrativos en régimen de titularidad pública.

Cabe también considerar como tal la actividad recreativa ejercida en régimen de titularidad privada o de carácter patrimonial, en particular la que, en su caso, pueda integrarse en el estándar previsto en la legislación vigente en materia de dotación de equipamiento privado de la red de sistemas locales, y, en su caso, generales. En este supuesto, dicho uso será asimilable al uso terciario de esa misma modalidad, y se entenderá en todo caso que tiene carácter lucrativo. En ambos casos, se integran en dicho uso los correspondientes usos auxiliares.

H. El uso de equipamiento religioso comprende las actividades de culto o formación religiosa que se desarrollan en las iglesias, ermitas, capillas y centros parroquiales entre los de religión católica, y los que pudieran desarrollarse en los centros de otras religiones, así como los correspondientes usos auxiliares.

I. Zerbitzu publikoen ekipamenduko erabileraren barruan erabilera hauek barne hartzen dira: Aurreko modalitateetan biltzen ez diren biztanleria osoaren zerbitzurako erabilerak, izaera askotarikoak eta zehazki administratiboak ez dutenak, hala nola suhiltzaileak, merkatuak, hilerriak, beilatokiak, errausketa labeak, aterpetxeak, turismo kanpalekuak eta beste zenbait, titulartasun publikoko erregimenean eta irabazi asmorik gabe gauzatuak.

Halakotzat jo daiteke, halaber, titulartasun pribatuko edo ondare titulartasuneko erregimenean gauzaturako jarduera horiek, bereziki tokiko sistemen eta, hala badagokio, sistema orokorren sareko ekipamendu pribatuen hornikuntzaren arloan indarrean dagoen legedian aurreikusitako estandarrean integra daitekeena. Kasu horretan, erabilera hori modalitate bereko hirugarren sektoreko erabilerarekin parekatu ahal izango da, eta irabazizko izaera duela ulertuko da kasu orotan. Bi kasuetan, dagozkien erabilera osagarriak ere erabilera horretan integrazten dira.

Modalitate honetako erabilerak, sortzen dituzten eraginak eta ondoreak (eragozpenak, kalteak, etab.) kontuan harturik industria erabilerarekin pareka daitezkeenak (errausketa labeak, esate baterako), azken erabilera horien antzeko baldintzetan ezarriko dira.

Lehentasunez etxebizitzara edo jarduera ekonomikoetara (industria jarduerak eta hirugarren sektorekoak) zuzentzen diren eremuetarako indarrean dagoen hirigintzako legedian nahitaezko hornikuntzat jotzen diren ekipamendu komunitarioko erabilerak, oro har, oinarriko zerbitzuetatik joko dira eremu horietan guztietan eta, horrenbestez, plangintzak ez du horiek ezartzeko berariazko baimenik eman behar.

7. Zerbitzu azpiegituren erabilerak.

Honako modalitate hauek ezartzen dira zerbitzu azpiegituren erabileren artean:

- * Urez hornitzeko azpiegituren erabilera.
- * Saneamenduko eta hondakin urak arazteko azpiegituren erabilera.
- * Elektrizitatez hornitzeko azpiegituren erabilera.
- * Telefoniako, telekomunikazioko eta seinaleztapeneko azpiegituren erabilera.
- * Erregaiz hornitzeko azpiegituren erabilera.
- * Hondakinak kudeatzeko azpiegituren erabilera.

A. Urez hornitzeko azpiegituren erabilerak honakoak biltzen ditu: Urtegiak; araztegiak; ura biltzeko eta banatzeko biltzeak; hornidura arteria handiak eta banaketa sareak; eguzki plakak eta ur bero sanitarioa sortzeko gainerako instalazioak eta dagozkien erabilera osagarriak.

B. Saneamenduko eta hondakin urak arazteko azpiegituren erabilerak honakoak biltzen ditu: Urak tratatzeko eta arazteko estazioak; saneamendu sareak, euri urak eta hondakin urak biltzeko hodi biltzaileak eta horien elementu osagarriak osatzen dituztenak, hala nola ponpaketa estazioak, gainezkabideak, ekaitz tankeak, torlojuak, erpinak eta bestelakoak; eta dagozkien erabilera osagarriak.

C. Elektrizitatez hornitzeko azpiegituren erabilerak honakoak biltzen ditu: Elektrizitatea banatzeko estazioak eta azpies-tazioak; transformazio zentroak; hornidurako eta banaketako aireko eta lurpeko sareak, herriko argiak barne; eraginkortasunerako eta energia aurrezteko instalazioak eta dagozkien erabilera osagarriak.

I. El uso de equipamiento de servicios públicos comprende aquellos usos de servicio al conjunto de la población no incluidos en las anteriores modalidades, de carácter diverso y no específicamente administrativo, como los de bomberos, mercados, cementerios, tanatorios, crematorios, albergues, campamentos de turismo, y otros, ejercidos sin fines lucrativos en régimen de titularidad pública.

Cabe también considerar como tales los usos de esa naturaleza ejercidos, en su caso, en régimen de titularidad privada o de carácter patrimonial, en particular los que pudieran integrarse en el estándar previsto en la legislación vigente en materia de dotación de equipamiento privado de la red de sistemas locales y, en su caso, generales. En este supuesto, dichos usos serán asimilables al uso terciario de esa misma modalidad, y se entenderá en todo caso que tiene carácter lucrativo. En ambos casos, se integran en dicho uso los correspondientes usos auxiliares.

Los usos de equipamiento de esta modalidad que, en atención a las afecciones y repercusiones derivadas de los mismos (molestias, perjuicios, etc.), sean equiparables a los usos industriales (como sucede en el caso de los crematorios) se implantarán en condiciones similares a las de esos últimos.

Los usos de equipamiento comunitario considerados como dotación obligatoria en la legislación urbanística vigente para los ámbitos destinados preferentemente a vivienda o a actividades económicas (industriales y terciarias), tendrán con carácter general, en todos esos ámbitos, la condición de usos de servicios básicos, por lo que su implantación no exigirá su autorización expresa por el planeamiento.

7. Usos de infraestructuras de servicios.

Se establecen las siguientes modalidades de usos de infraestructuras de servicios:

- * Uso de infraestructuras de abastecimiento de agua.
- * Uso de infraestructuras de saneamiento y depuración de aguas residuales.
- * Uso de infraestructuras de suministro eléctrico.
- * Uso de infraestructuras de telefonía, telecomunicación y señalización.
- * Uso de infraestructuras de abastecimiento de combustibles.
- * Uso de infraestructuras de gestión de residuos.

A. El uso de infraestructuras de abastecimiento de agua comprende: Los embalses; las estaciones depuradoras; los depósitos de almacenamiento y distribución; las grandes arterias de abastecimiento; las redes de distribución; las placas solares y restantes instalaciones generadoras de agua caliente sanitaria; los correspondientes usos auxiliares.

B. El uso de infraestructuras de saneamiento y depuración de aguas residuales comprende: Las estaciones de tratamiento y depuración; las redes de saneamiento, formadas por colectores de recogida de aguas pluviales o residuales y sus elementos auxiliares, como estaciones de bombeo, aliviaderos, tanques de tormentas, tornillos, vértices y otros; los correspondientes usos auxiliares.

C. El uso de infraestructuras de suministro eléctrico comprende: Las estaciones y subestaciones de distribución; los centros de transformación; las redes aéreas y subterráneas de abastecimiento y distribución, incluso el alumbrado público; las instalaciones de eficiencia y ahorro energético; los correspondientes usos auxiliares.

D. Telefoniako, telekomunikazioko eta seinaleztapeneko azpiegituren erabilerak honakoak biltzen ditu: Telefono zentralak; irratiko eta telebistako instalazioak eta produkzio zentroak; mota orotako antenak; eta dagozkien erabilera osagarriak eta sareak.

E. Erregaiz hornitzeko azpiegituren erabileren artean gasbideak eta jendeari zuzenean zerbitzatzeko gas banaketarako sareak daude, baita horiei erantsitako produkzioko, tratamenduko eta biltegitzeko instalazioak ere.

Halaber, modalitate honetan barne hartuko dira zuzenean erabiltzaileen erregai biltegiak, petrolioaren eratorri astunen biltegiak –gasolioa edo fuel-olioa– eta gas likidotuen biltegiak.

Mota orotako erregaiak produzitzeko eta biltegitzeko instalazioak, salmentara zuzentzen direnak –edozein modalitate-tan–, industria erabileratzat hartuko dira ondorio guztietarako.

F. Hondakinak kudeatzeko azpiegituren erabilerak honakoak biltzen ditu: Hiri hondakin solidoak biltzeko eta tratatzeko beharrezkoak diren instalazioak, hala nola garbiguneak, modalitate eta izaera bateko zein besteko hondakinak biltegitzeko eta tratatzeko instalazioak (konpostegia; erraustegia; zabortegia; etab.) eta xede horretara zuzendutako beste instalazio batzuk, baita dagozkien erabilera osagarriak ere.

Titulu honetako 2. kapituluaren berriaz aurkakorik adierazten ez bada eta/edo dagozkien gune globaleko erabilera erregimen orokorarekin bateraezinak ez badira, mota guztietako zerbitzuak banatzeko sareak eta instalazioak –ura, saneamendua, energia elektrikoa, telefonia, gasa eta bestelakoak–, urez hornitzeko ponpaketa estazioak edota hondakin urak eroatekoak, energia elektrikoa transformatzeko zentroak, petrolioaren eratorrien biltegiak –gasolioa edo fuel-olioa–, erabiltzaileari zuzenean zerbitzatzeko gas erregai likidotuen biltegiak eta hondakinak kudeatzeko zentroak oinarritzko zerbitzu erabileratzat joko dira, eta erabilera globaleko hiri gune guztietan baimenduta geratuko dira, zirkunstantzia hori espresuki definitu beharrik gabe.

Era berean, baimendutakotzat joko dira aurreztearen ikuspegitik eskatzen diren eta/edo justifikatuta dauden instalazioak (eguzki plakak eta ur bero sanitarioa sortzeko gainerako instalazioak; plaka fotovoltaikoak; argizatze alorrean energia eraginkortasunez erabiltzeko eta aurrezteko instalazioak; etab.).

Zerbitzu azpiegituren sareetako elementuak egitura kalifikazioan zein kalifikazio xehatuan islatuko dira lurzorua sestra gainean nagusiki okupatu behar dutenean eta okupazio horrek beste erabilera batzuk ezartzeko aukera baztertzen duenean.

Nolanahi ere, zerbitzu azpiegitura horiek materialki eta juridikoki ezartzeko baldintza zehatzak Plan Orokor hau garatzeko sustatuko diren udal ordenantzetan finkatzen direnak izango dira.

2. KAPITULUA. KALIFIKAZIO GLOBALA

7. artikulua. Gune globalen sistematizazioa.

Kalifikazio globaleko erregimen orokorra jarraian adierazten diren gune globalak bereiziz sistematizatzen da:

- * R. Bizitegi erabilerako guneak.
- R.1 Hirigune Historikoko bizitegi gunea.
- R.2 Eraikuntza irekiko bizitegi gunea.

D. El uso de infraestructuras de telefonía, telecomunicación y señalización comprende: Las centrales telefónicas; las emisoras y centros de producción de radio y T.V.; las antenas de todo tipo; y los correspondientes usos auxiliares y redes.

E. El uso de infraestructuras de abastecimiento de combustibles comprenderá los gasoductos y las redes de distribución de gas de suministro directo al público en general, así como las instalaciones de producción, tratamiento y almacenamiento anejas a las mismas.

Asimismo se considerarán incluidos en esta modalidad de uso los depósitos de combustibles de los usuarios directos, distinguiendo en ellos entre los depósitos de derivados pesados del petróleo –gas oil o fuel oil– y los de gases licuados.

Las instalaciones de producción y almacenamiento de combustibles de todo tipo, destinadas a la venta en cualquiera de sus modalidades, se considerarán a todos los efectos como usos industriales.

F. El uso de infraestructuras de gestión de residuos comprende las instalaciones precisas para la recogida y tratamiento de los residuos sólidos urbanos tales como los garbigunes, las plantas de almacenaje y tratamiento de una u otra modalidad y naturaleza (planta de compostaje; vertedero; etc.), y otras instalaciones destinadas a ese mismo fin, así como los correspondientes usos auxiliares.

Salvo que se señale lo contrario y/o sean incompatibles con el régimen general de uso de la correspondiente zona global, las redes de distribución de servicios de todo tipo –agua, saneamiento, energía eléctrica, telefonía, gas y otros–, las estaciones de bombeo para el abastecimiento de agua o la conducción de aguas residuales, los centros de transformación de energía eléctrica, los depósitos de derivados del petróleo –gasóleo o fuel oil– y los depósitos de gases combustibles licuados de servicio directo al usuario, y los centros de gestión de residuos se considerarán como usos de servicio básicos, quedando autorizados en la totalidad de las zonas de uso global sin la necesidad de la definición expresa de esta circunstancia.

Se entenderán igualmente autorizadas las instalaciones exigidas y/o justificadas desde la perspectiva de ahorro de energía (placas solares y restantes instalaciones generadoras de agua caliente sanitaria; placas fotovoltaicas; instalaciones de eficiencia y ahorro energético en materia de iluminación; etc.).

Los elementos de las redes de infraestructuras de servicios se reflejarán tanto en la calificación estructural como pormenorizada cuando deban ocupar el suelo, sobre rasante, de forma predominante, y, esa ocupación sea excluyente de la implantación superpuesta de otros usos.

En todo caso, las precisas condiciones de implantación material y jurídica de las citadas infraestructuras de servicios serán las fijadas en las ordenanzas municipales a promover en desarrollo de este Plan General.

CAPITULO 2. LA CALIFICACIÓN GLOBAL

Artículo 7. Sistematización de las Zonas Globales.

El régimen general de Calificación Global se sistematiza mediante la diferenciación de las diversas zonas de uso global que se exponen a continuación:

- * R. Zonas de uso residencial.
- R.1 Residencial de Casco Antiguo.
- R.2 Residencial de edificación abierta.

- * AE. Jarduera ekonomikoen erabilerako gunekak.
 - AE.1 Industria erabilera.
 - AE.2 Hirugarren sektoreko erabilera.
 - * UR. Landa erabilerako gunekak.
 - UR.1 Babes bereziko landa gunea.
 - UR.2 Paisaia babesteko nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko landa gunea.
 - UR.3 Erabilera agro-ekologikoko nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko landa gunea.
 - UR.4 Basogintzako landa gunea.
 - UR.5 Lur gaineko uren babesa.
 - * SGC. Komunikazioen sistema orokorra.
 - SGC.V.1 Bide komunikazioen sistema orokorra.
 - SGC.V.1.1 Hiriarteko errepidea.
 - SGC.V.1.2 Herri barruko bidea.
 - SGC.V.1.3 Landa guneko bide nagusia.
 - SGC.V.1.4 Bizikleta bidea.
 - SGC.F.2 Trenbide komunikazioen sistema orokorra.
 - SGC.P Portuko sistema orokorra.
 - * SGEL. Espazio libreen sistema orokorra.
 - SGEL.1 Hiriko espazio libreak.
 - SGEL.2. Hiriko ibai ibilguak.
 - * SGEC. Ekipamendu komunitarioko sistema orokorra.
 - SGEC. 1 Ekipamendu komunitarioko sistema orokorra.
 - * SGIS. Zerbitzu azpiegituren sistema orokorra.
 - SGIS. 1 Zerbitzu azpiegituren sistema orokorra.
8. artikulua. *Erabilera globaleko guneen eraikuntzako, erabilerako eta jabariko erregimen orokorra.*

- * R. Bizitegi erabilerako gunekak.

1. R.1 Hirigune Historikoko bizitegi gunea.

Berezitasuna eta interes historikoa, kulturala eta hirigintza alorrekoa kontuan harturik, irauarazi nahi diren alde zaharreko edo hirigune historikoko morfologia duten bizitegi kokaguneeen presentziak batik bat taxutzen duen gunea.

A. Eraikuntza erregimen orokorra.

Dagozkien hirigintza eremuetako arau partikularretan zein plangintza xehatua justifikatzen diren salbuespen eta birdoitzeen kalterik gabe, guneko jatorrizko lursail zatiketa eta espazioaren eta eraikuntzaren morfologia bere funtsezko alderdietan mantendu behar da, eta balio garrantzitsua duten eraikuntzaren eta urbanizazioaren elementuak irauarazi egin behar dira.

Aurreko irizpideekin bat eginez, eraikuntza erregimena dokumentu honetan bertan («Rd.1 Hirigune historikoko bizitegi lursailtarako» ezarritako eraikuntza erregimena) zein aipatutako Plangintza xehatua ezarritakoa da. (Lezoko Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia, 2010eko apirilaren 21ean behin betiko onartutakoa).

B. Erabilera erregimen orokorra.

Plan Orokor honetako 72. artikuluan xedatutako erabilera erregimena ezarriko da. Nolanahi ere, plangintza xehatua, ditekuntza edo arau osagarriak ezar daitezke.

- * AE. Zonas de uso de actividades económicas.
 - AE.1 Uso industrial.
 - AE.2 Uso terciario.
- * UR. Zonas de uso rural.
 - UR.1 Rural de especial protección.
 - UR.2 Rural agroganadero y campiña.
 - UR.3 Rural protección ambiental.
 - UR.4 Forestal.
 - UR.5 Protección de aguas superficiales.
- * SGC. Sistema general de comunicaciones.
 - SGC.V.1 Sistema general de comunicación viaria.
 - SGC.V.1.1 Carretera interurbana.
 - SGC.V.1.2 Vía urbana.
 - SGC.V.1.3 Rural principal.
 - SGC.V.1.4 Vía ciclista.
 - SGC.F.2 Sistema general de comunicación ferroviaria.
 - SGC.P Sistema general Portuario.
- * SGEL. Sistema general de espacios libres.
 - SGEL.1 Espacios libres urbanos.
 - SGEL.2. Cauces fluviales urbanos.
- * SGEC. Sistema general de equipamiento comunitario.
 - SGEC.1 Sistema general de equipamiento comunitario.
- * SGIS. Sistema general de infraestructuras de servicios.
 - SGIS.1 Sistema general de infraestructuras de servicios.

Artículo 8. Régimen general de edificación, uso y dominio de las zonas de uso global.

- * R. Zonas de uso residencial.

1. Zona R.1 Residencial de Casco Antiguo.

Zona configurada por la presencia de, preferentemente, asentamientos residenciales con morfología de casco antiguo o centro histórico a preservar en atención a su singularidad e interés histórico, cultural y urbanístico.

A. Régimen general de edificación.

Sin perjuicio de las salvedades y reajustes a establecer en planeamiento de desarrollo, se ha de mantener en sus aspectos fundamentales la parcelación originaria y la morfología espacial y edificatoria de la zona, y se han de conservar los elementos de edificación y urbanización de valor relevante.

El régimen de edificación es el establecido, en sintonía con los criterios anteriores, tanto en este mismo Documento (régimen edificatorio establecido en él para las parcelas «Rd.1 Residencial de Casco Antiguo»), como en el citado planeamiento pormenorizado (Plan Especial de Rehabilitación del Casco Histórico de Lezo, aprobado definitivamente el 21 de abril de 2010.).

B. Régimen general de uso.

Sin perjuicio de los reajustes y complementos que, en su caso, se establezcan en el planeamiento pormenorizado, será de aplicación el régimen de uso establecido en el artículo 72 de este Plan General.

C. Bizitegi erabilerarekin bateragarriak diren erabileretara zuzendutako hirigintza eraikigarritasunaren ehuneko maximoa.

Oro har, eta nahiz dagozkion Arau Partikularretan nahiz sustatu beharreko plangintza xehatuan ezar litezkeen neurri murriztaileagoen kalterik gabe, gune osoan bizitegikoaz bestelako erabilera baimenduetara zuzendutako hirigintza eraikigarritasunaren ehuneko maximoa gune horretako hirigintza eraikigarritasun osoaren %40ren baliokidea izango da.

D. Jabaria: Pribatua eta/edo ondare erabilerakoa.

2. R.2 Eraikuntza irekiko bizitegi gunea.

Lehentasunez bizitegi kokaguneez taxutzen duten gune, lehentasunez, halaber, eraikuntza dentsitate handia, ertaina edo txikia duten tipologia irekiko eraikuntzen presentzia bereizgarri duena.

A. Eraikuntza erregimen orokorra.

Gune honetako eraikuntza erregimen orokorrak, lehentasunez, tipologia irekiko eraikuntzen presentzia du bereizgarri. Eraikuntzak bereiziak, elkarriz atxikiak edo bakartuak izan daitezke, bolumen handiagoko edo txikiagoko blokeen moduan, lehentasunez bizitegi erabileretara zuzendutako, etxebizitza kopuru handiagorekin edo txikiagorekin, eta espazio erantsi iraiki gabeak izan ditzakete edo ez.

Erregimen hori da «Rd.2 Eraikuntza irekiko bizitegi lursailen» eta «Rd.3 Garapen txikiko eraikuntzako bizitegi-lursailen» lursailen berezko eraikuntza erregimena kontuan hartzearen ondoriozkoa.

Halaber, gune hauetako eraikinen ezaugarriak izango dira Eraikuntzako eta Erabilerako Ordenantza Orokorretan eta eremu bakoitzaren Arau Partikularrean ezarritakoak.

B. Erabilera erregimen orokorra.

* Erabilera bereizgarriak:

— Bizitegi erabilerak.

* Erabilera bateragarriak edo onargarriak:

— Bizitegi lursailetan: «Rd.2 Eraikuntza irekiko bizitegi lursaila» eta «Rd.3 Garapen txikiko eraikuntzako bizitegi lursaila» izeneko lursailetan eta Hirigintza Arau hauetako Eraikuntzako eta Erabilerako Ordenantza ordenantzetan oro har baimendutakoak.

— Bizitegikoaz bestelako tipologia duten eta hornikuntza publikoetara zuzenduta ez dauden beste lursail eta espazio batzuetan:

— Jarduera ekonomikoen erabilerak, industriakoak (1. eta 2. kategoriak) zein hirugarren sektorekoak (1., 2. eta 3. kategorietako merkataritza erabilerak), nahiz Plan Orokor honetan dagozkion Arau Partikularrean nahiz plangintza xehatuan mota horretarako erabileretara zuzentzen diren lursailetan.

— Ekipamendu komunitarioko erabilerak, gunean bultzatutako erabilerekin bateragarriak diren modalitateetan.

— Aparkaleku eta garaje erabilera.

— Hornikuntza erabilera publikoak (komunikazioak, espazio libreak, ekipamenduak, zerbitzu azpiegiturak, etab.), guneko erabilera bereizgarriekin bateragarriak diren modalitateetan.

* Erabilera debekatuak: Aurreko modalitateetan sartzen ez direnak.

C. Porcentaje máximo de edificabilidad urbanística destinado a usos compatibles con el residencial.

Con carácter general y sin perjuicio de medidas más restrictivas que pudieran establecerse bien en las correspondientes Normas Particulares bien en el planeamiento pormenorizado a promover, el porcentaje máximo de edificabilidad urbanística destinado en el conjunto de la zona a usos autorizados diversos del residencial será equivalente al 40 % de la edificabilidad urbanística total de la misma.

D. Dominio: Privado y/o patrimonial.

2. Zona R.2 Residencial de Edificación Abierta.

Zona configurada por asentamientos preferentemente residenciales, caracterizada por la presencia de, también preferentemente, edificaciones de tipología abierta, con una densidad edificatoria alta, media o baja.

A. Régimen general de edificación.

El régimen general de edificación de esta zona está caracterizado por la presencia de, preferentemente, edificaciones de tipología abierta, bien exentas, bien adosadas entre sí, bien aisladas, en forma de bloques de mayor o menor volumen, destinadas a usos preferentemente residenciales, con un mayor o menor número de viviendas, y con disposición o no de espacios anejos no edificados.

Dicho régimen es el resultante de la consideración conjunta del régimen edificatorio propio de las parcelas «Rd.2 Parcela residencial de edificación abierta» y «Rd.3 Parcela residencial de bajo desarrollo», características de esta zona.

Igualmente, las edificaciones de estas zonas responden a las características resultantes de la aplicación de las Ordenanzas Generales de Edificación y uso que se establecen en el Título Quinto y, en la Norma Particular de las áreas respectivas.

B. Régimen general de uso.

* Usos característicos:

— Usos residenciales.

* Usos compatibles o admisibles:

— En parcelas residenciales: Los usos autorizados con carácter general para las parcelas «Rd.2 Parcela residencial de edificación abierta» y «Rd.3 Parcela residencial de bajo desarrollo», en las Ordenanzas generales de Edificación y Uso de las presentes Normas Urbanísticas.

— En otras parcelas y espacios de tipología diversa a la residencial y no destinados a dotaciones públicas:

— Usos de actividades económicas, tanto industriales (1ª y 2ª categorías) como terciarios (usos comerciales de 1ª, 2ª y 3ª categorías), en parcelas que, bien en la correspondiente Norma Particular de este Plan General bien en el planeamiento pormenorizado, se destinan a ese tipo de usos.

— Usos de equipamiento comunitario, en sus distintas modalidades compatibles con los usos característicos en la zona.

— Uso de aparcamiento y garaje.

— Usos dotaciones públicas (comunicaciones, espacios libres, equipamientos, infraestructuras de servicios, etc.) en sus distintas modalidades compatibles con los usos característicos de la zona.

* Usos prohibidos: Los no incluidos en ninguna de las modalidades anteriores.

C. Bizitegi erabilerarekin bateragarriak diren erabileretara zuzendutako hirigintza eraikigarritasunaren ehuneko maximoa.

Oro har, eta nahiz dagozkion Arau Partikularretan nahiz sustatu beharreko plangintza xehatuan ezar litezkeen neurri murriztaileagoen kalterik gabe, gune osoan bizitegiko erabileraz bestelako irabazizko erabilera baimenduetara zuzendutako hirigintza eraikigarritasunaren ehuneko maximoa gune horretako hirigintza eraikigarritasun osoaren %40ren baliokidea izango da.

D. Jabaria: Pribatua eta/edo ondare erabilerakoa.

* AE. Jarduera ekonomikoen erabilerako guneak.

3. AE.1 Industria erabilerako gunea.

Lehentasunez industria erabilera deritzenen berezko modalitateko jarduera ekonomikoen erabileretara zuzendutako gunea, lehentasunez, halaber, izaera horretako jardueretara eta horien osagarrietara zuzendutako eraikuntzak izatea bereizgarri duena.

A. Eraikuntza erregimen orokorra.

Erregimen hori da «I.1 Industria lursaila» izeneko lursailen berezko eraikuntza erregimena kontuan hartzearen ondoriozkoa.

Halaber, gune honetako eraikinen ezaugarriak izango dira Eraikuntzako eta Erabilerako Ordenantza Orokorretan eta eremu bakoitzaren Arau Partikularrean ezarritakoak.

B. Erabilera erregimen orokorra.

* Erabilera bereizgarriak:

— Industria erabilerak, kategoria guztietan.

* Erabilera onargarriak:

— Industria lursailetan: «I.1 Industria Lursaila» tipologiako lursailetan oro har baimendutako erabilerak, hala Plan Orokor honetan, nola, hala badagokio, plangintza xehatuan ezarritako baldintzetan.

— Industria lursailaz bestelako tipologia duten eta hornikuntza publikoetara zuzenduta ez dauden beste lursail eta espazio batzuetan:

— Etxebizitza autonomoaren erabilera: Plan Orokor hau onartu aurretik dauden eta xede horretarako erabiltzen diren lursailetan eta/edo eraikuntzetan besterik ez.

— Hirugarren sektoreko erabilera autonomoak: Dagokien arau partikularrean zein garapen plangintzan nahiz berariaz erabilera horietara, nahiz erabilera horietara eta horiekin bateragarriak diren beste erabilera batzuetara zuzentzen diren lursailetan.

— Merkataritza erabilerak: Gehienez ere, 4. kategoriaraino, hura barne.

— Ekipamendu komunitarioko erabilerak, gunean bultzatutako erabilerekin bateragarriak diren modalitateetan.

— Aparkaleku eta garaje erabilera.

— Hornikuntza erabilera publikoak (komunikazioak, espazio libreak, ekipamenduak, zerbitzu azpiegiturak, etab.), gune-ko erabilera bereizgarriekin bateragarriak diren modalitateetan.

* Erabilera debekatuak: Aurreko modalitateetan sartzen ez direnak.

C. Industria erabilerarekin bateragarriak diren erabileretara zuzendutako hirigintza eraikigarritasunaren ehuneko maximoa.

C. Porcentaje máximo de edificabilidad urbanística destinado a otros usos compatibles con el residencial.

Con carácter general y sin perjuicio de medidas más restrictivas que pudieran establecerse en las correspondientes Normas Particulares, el porcentaje máximo de edificabilidad urbanística destinado a usos lucrativos autorizados diversos del residencial será equivalente al 40% de la edificabilidad urbanística total de la zona.

D. Dominio: Privado y/o patrimonial.

* AE. Zonas de uso de actividades económicas.

3. Zona AE.1 Uso Industrial.

5.3. Zuzkidura publikoetara zuzendutako gune eta lursailen eraikigarritasun fisikoa arautzen duten aurreikuspenek antolamendu xehatuaren berezko maila dute.

11. artikulua. Eraikigarritasun fisikoa zenbatzeko irizpideak.

Oro har, honako espazio hauek eraikuntza baten eraikigarritasun fisiko edo gordin gisa zenbatuko dira:

* Sestra gainean zein sestrapean kokatutako 1,80 m-tik gorako altuera librean duten espazio estaliak eta itxiak. Altuera hori gainditzen duen zatia zenbatuko da.

* Eraikineko elementu trinkoak.

* Patioak eta $\varnothing < 1,50$ m-ko instalazioen hodiak.

* Igogailuen kaxak.

* Eskailerek okupatutako azalera, haien plano inklinatuak edo gakoak barne.

* Hegal irekiak (balkoiak, terrazak, eguterak, etab.) eta ataripeak, estaltzeko aukera dutenean eta erabilera publikoko zortasunen mende ez daudenean. Azaleraren %50 zenbatuko da.

* Atzeraemanguneak, baldin eta beren lau aldeetatik hiru itxita badituzte –zoruaz eta sabaiaz gain–, aurrealdean irekita egon arren. %100 zenbatuko dira. Tratamendu horixe izango dute guztiz itxitako hegalek, eta halaber atzeraemanguneetarako aipatu ditugun itxitura baldintza betetzen dituztenak.

* Aurreko baldintzak bete arren, eraikin beregain eta baimendutako profilean integratua osatzen ez duten teilatupeko espazioak soilik zenbatuko dira baldin eta erabilera nagusietara zuzentzen badira (lursailean bereizgarriak eta onargarriak direnak, osagarriak salbu), hala beheko solairuan aurreikusitakoetara lotutakoak nola autonomoak eta bereziak izan.

Espazio horiek zenbatuko dira, nolana ere, artikulua honetan ezarritako irizpideen arabera, baldin eta espazio horiek eraikuntza solairu beregain eta baimendutako profilean integratu bat eratzen badute.

Aitzitik, ez dira zenbatuko aipatutako eraikigarritasunaren zati gisa ondorengo espazio eta elementuak:

* 1,80 m-tik beherako altuera duten espazio estaliak eta itxiak.

* Patioak eta $\varphi > 1,50$ m-ko instalazioen hodiak.

* Erabilera publikoko ataripeak, titulartasun publikokoak edo pribatukoak izan (kasu honetan, erabilera publikoaren zortasunaren mende).

* Baimendutako sabaiondoak.

5. Rango y naturaleza jurídico-urbanística de las previsiones reguladoras de la edificabilidad.

5.1. Las previsiones reguladoras de la edificabilidad urbanística general de las zonas globales y/o Ámbitos Urbanísticos delimitados en este Plan General tienen el rango propio de la ordenación estructural.

5.2. Las previsiones reguladoras de la edificabilidad urbanística de las distintas (sub)zonas pormenorizadas o parcelas resultantes bien de este Plan General bien del planeamiento pormenorizado tienen el rango propio de la ordenación pormenorizada.

5.3. Las previsiones reguladoras de la edificabilidad física de las zonas y parcelas destinadas a dotaciones públicas tienen el rango propio de la ordenación pormenorizada.

Artículo 11. Criterios de cómputo de la edificabilidad física.

Computarán con carácter general como edificabilidad física de una edificación los espacios siguientes:

* Los espacios cubiertos y cerrados, mediante cualquier tipo de material, situados tanto sobre como bajo rasante, con más de 1,80 m. de altura libre. Computará la parte de los mismos que supere dicha altura.

* Los elementos macizos de la edificación.

* Los patios y los conductos de instalaciones de $\varnothing < 1,50$ m.

* Los huecos de ascensores.

* La superficie ocupada por las escaleras incluyendo sus planos inclinados o curvos que las configuren.

* Los vuelos abiertos (balcones, terrazas, solanas, etc.), así como los porches (cuando dispongan de cubrimiento y no estén sometidos a servidumbres de uso público), computarán en el 50% de su superficie.

* Los retranqueos respecto de la línea de fachada establecida que tengan, además del suelo y techo, tres de sus cuatro lados cerrados, computarán al 100%, aún cuando estén abiertos en su frente. Tendrán este mismo tratamiento tanto los vuelos cerrados en su totalidad como aquellos otros que reúnan las condiciones de cierre antes mencionadas para los retranqueos.

* Aún cuando cumplan las condiciones anteriores, los espacios situados bajo cubierta que no conformen una planta de edificación diferenciada como tal e integrada en el perfil autorizado, computarán exclusivamente en el supuesto de que, se destinen a usos principales (característicos y admisibles en la parcela, exceptuados los auxiliares), tanto vinculados a los previstos en la planta inferior como autónomos y diferenciados en sí mismos.

Esos espacios computarán en todo caso, de conformidad con los criterios establecidos en este artículo, en el supuesto de que dichos espacios conformen una planta de edificación diferenciada como tal e integrada en el perfil autorizado.

Por el contrario, no computarán como parte de la citada edificabilidad los espacios y elementos siguientes:

* Los espacios cubiertos y cerrados con menos de 1,80 m. de altura.

* Los patios y conductos de instalaciones de $\varphi > 1,50$ m.

* Los porches de uso público, sean de titularidad pública o privada (sujetos en este caso a servidumbre de uso público).

* Los altillos autorizados.

* Zerbitzuguneen eta erregaia hornitzeko unitateen hornidura hartuneak kokatzen diren guneeetan jarri beharreko estalkiak, instalazioak zein haien erabiltzaileak babesteko direnak, baldin eta funtzio hori betetzeko baino ez badira.

Hala eta guztiz ere, oro har, aipatutako eraikigarritasun horren zehaztapenean bereiziko da lursailaren sestraren gainean eta azpian aurreikusitakoa.

HIRUGARREN TITULUA

LURZORUAREN KALIFIKAZIO XEHATUAREN ERREGIMENA

1. KAPITULUA. KALIFIKAZIO XEHATUAREN SISTEMATIZAZIOA

12. artikulua. Kalifikazio Xehatuaren erregimena.

1. Hurrengo artikuluan bereizten diren erabilera xehatuko azpigune guztien erregimen juridiko-urbanistikoa ondorengo zehaztapen guztiak aplikatzearen ondoriozkoa da:

a) Kapitulu honetako «14. artikuluan» haietako bakoitzarako ezarritako eraikuntza, erabilera eta jabariko erregimen orokorra.

b) Dokumentu honetako «Bosgarren Titulua. Eraikuntzako Ordenantza Arautzaileak eta Lursail Eraikigarrien Erabilera» izeneko atalean ezarritako eraikuntzaren ordenantza arautzaileak.

c) Hiri lurzoru gisa sailkatutako Hiri Antolamenduko Eremuen kasuan, Arau Partikularretako «IV Hirigintza Erregimen Xehatua» izeneko epigrafean ezarritako Antolamendu Xehatuko zehaztapenak, edo, hala badagokio, hura garatzeko plangintzak ezarriko dituenak.

d) Lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako Hiri Antolamenduko Eremuen kasuan, dagokion Plan Partzialak ezarritako zehaztapenak.

2. Hala hiri lurzorian nola lurzoru urbanizagarrian formulatzen den garapeneko plangintza betiere egokituko da aurreko «1.a» eta «1.b» idatz zatietan aipatutako zehaztapenetera.

13. artikulua. Erabilera xehatuko azpiguneen sistematizazioa.

1. Kalifikazio xehatuaren erregimen orokorrak hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako udalerriko lur eremuetan du eragina, eta erabilera xehatuko azpiguneen oinarritzko mota hauek bereiziz sistematizatzen da:

- * Rd. Bizitegi lursaila.
- * I. Jarduera ekonomikoen lursaila.
- * C. Komunikazio sistema.
- * EL. Espazio libreak.
- * EC. Ekipamendu komunitarioa.
- * S. Zerbitzuen azpiegitura.

* Las coberturas que deban colocarse en las zonas de ubicación de las bocas de suministro de las estaciones de servicio y unidades de suministro de combustible para la protección tanto de esas instalaciones como de los usuarios de las mismas, siempre que se limiten a cumplir esa función.

En todo caso, también con carácter general, en la determinación de la citada edificabilidad se diferenciará la prevista sobre y bajo la rasante de la parcela.

TÍTULO TERCERO

RÉGIMEN DE LA CALIFICACIÓN PORMENORIZADA DEL SUELO

CAPITULO 1. SISTEMATIZACIÓN DE LA CALIFICACIÓN PORMENORIZADA

Artículo 12. Régimen de calificación Pormenorizada.

1. El régimen jurídico-urbanístico de las diversas subzonas de uso pormenorizado diferenciadas en el artículo siguiente es el que resulta de la aplicación de todas y cada una de las determinaciones siguientes:

a) Régimen general de edificación, uso y dominio establecido para cada una de ellas en el «artículo 14» de este mismo Capítulo.

b) Ordenanzas Reguladoras de la edificación y uso contenidas en el «Título Quinto. Ordenanzas Reguladoras de Edificación y Uso de las Parcelas Edificables» de este mismo Documento.

c) En el caso de los Ámbitos de Ordenación Urbanística clasificados como suelo urbano, las determinaciones de Ordenación Pormenorizada establecidas en el epígrafe «IV Régimen Urbanístico Pormenorizado» de las correspondientes Normas Particulares, o, en su caso, las que establezca el planeamiento de desarrollo.

d) En el caso de los Ámbitos de Ordenación Urbanística clasificadas como suelo urbanizable, las determinaciones que establezca el correspondiente Plan Parcial.

2. El planeamiento de desarrollo que se formule tanto en suelo urbano como en suelo urbanizable, deberá adecuarse en todo caso a las determinaciones referidas en los apartados «1.a» y «1.b» anteriores.

Artículo 13. Sistematización de las subzonas de uso pormenorizado.

1. El régimen general de calificación pormenorizada incide en los terrenos del municipio clasificados como suelo urbano y suelo urbanizable, y se sistematiza mediante la diferenciación de los siguientes tipos básicos de subzonas de uso pormenorizado:

- * Rd. Parcela residencial.
- * I. Parcela de actividades económicas.
- * C. Sistema de comunicaciones.
- * EL. Espacios libres.
- * EC. Equipamiento comunitario.
- * S. Infraestructura de servicios.

2. Erabilera xehatuko azpigune horiek, era berean, jarraian azaltzen diren aldaera edo modalitate tipologikoak dituzte, bakoitza eraikuntzako eta erabilerako erregimen espe- zifiko bati lotuta:

- * Rd. Bizitegi lursaila.
 - Rd.1 Hirigune Historikoko bizitegi lursaila.
 - Rd.2 Eraikuntza irekiko bizitegi lursaila.
 - Rd.3 Garapen txikiko eraikuntzako bizitegi lursaila.
- * I. Jarduera ekonomikoen lursaila:
 - I.1 Industria Erabilerako Lursaila.
 - I.2 Hirugarren sektoreko erabilerako Lursaila.
- * C. Komunikazio sistema.
 - C.1 Bide Sarea.
 - C.1.1 Hiriarteko Errepidea.
 - C.1.2. Hiri bideak.
 - C.1.3. Landa Bideak.
 - C.1.4 Bizikleta bideak.
 - C.2. Trenbide Sarea.
 - C.3. Aparkalekuak.
 - C.4. Portuaren Espazioa.
- * EL. Espazio Libreak.
 - EL.1 Hiriko espazio libreak.
 - EL.2 Espazio libre komunak.
 - EL.3. Ibai ibilguak.
- * EC. Ekipamendu Komunitarioa.
 - EC.1 Ekipamendu komunitarioa.
- * IS. Zerbitzuen Azpiegitura.
 - IS.1 Zerbitzuen azpiegitura.

14. artikulua.-Erabilera xehatuko azpiguneen eraikun- tza, erabilerako eta jabariko erregimen orokorra.

1. Rd.1 Hirigune Historikoko bizitegi lursaila.

Antzinako bizitegi kokaguneei dagozkien lursailak. Berezi- tasuna eta interes historikoa, kulturala eta hirigintza alorreko kontuan harturik irauarazi behar diren eraikuntzek eta, hala badagokio, berezitasun hori ez dutelako ordez daitezkeen beste batzuek okupatzen dituzte. Ordez tuz gero, eraikuntza berria bizitegi kokagune horien berezko baldintza orokorretara ego- kitu beharko da.

A. Eraikuntza erregimen orokorra.

Bere funtsezko alderdietan mantendu behar da lursail hauen eta kokatuta dauden eremuen berezko espazioaren eta eraikun- zaren morfologia, jatorrizko lursail zatiketa barne, Plan Orokor honen Arau Partikularretan edo plangintza xehatuan, eremu horiek zein bertan dauden eraikuntzak birgaitzea sustatzearen onerako, horiek birdoitzea komeni dela irizten diotenean izan ezik.

Helburu horiek ez dute baztertzen auri egoeran dauden ele- mentuak edo eraikinak ordezkatzeko aukera, eta, plangintza xehatuak hala ezartzen duenean, baliorik gabeko elementu erantsiena, edo eraiki gabe edo azpieraikita dauden lursailak okupatzea edo betetzea; dena den, eraikin berriek betiere erres- petatu beharko dituzte gunean lehendik zeuden jatorrizko erai- kinen eta elementu eraikien oinarritzko arau tipologikoek.

2. Dichas subzonas de uso pormenorizado contienen, a su vez, las variantes o modalidades tipológicas que se exponen a continuación, cada una de ellas vinculadas a un régimen espe- cífico de edificación y uso:

- * Rd. Parcela residencial:
 - Rd.1 Parcela residencial de Casco Antiguo.
 - Rd.2 Parcela residencial de edificación abierta.
 - Rd.3 Parcela residencial de bajo desarrollo.
- * I. Parcela de actividades económicas:
 - I.1 Parcela Uso Industrial.
 - I.2 Parcela Uso Terciario.
- * C. Sistema de Comunicaciones.
 - C.1 Red Viaria.
 - C.1.1. Carretera Interurbana.
 - C.1.2. Viario Urbano.
 - C.1.3. Caminos Rurales.
 - C.1.4. Vías Ciclistas.
 - C.2. Red Ferroviaria.
 - C.3. Aparcamientos.
 - C.4. Espacio Portuario.
- * EL. Espacios Libres.
 - EL.1. Espacios libres urbanos.
 - EL.2. Espacios libres comunes.
 - EL.3. Cauces fluviales.
- * EC. Equipamiento Comunitario.
 - EC.1 Equipamiento comunitario.
- * IS. Infraestructura de Servicios.
 - IS.1 Infraestructura de servicios.

Artículo 14. Régimen general de edificación, uso, y domi- nio de las subzonas de uso pormenorizado.

1. Rd.1 Parcela residencial de Casco Antiguo.

Parcelas propias de los asentamientos residenciales anti- guos. Están ocupadas por edificaciones que en atención a su singularidad e interés histórico, cultural y urbanístico procede preservar, así como, en su caso, por otras que por no contar con esa singularidad pueden ser sustituidas debiendo adaptarse, eso sí, la nueva edificación a las condiciones generales propias de dichos asentamientos residenciales.

A. Régimen general de edificación.

Se ha de mantener, en sus aspectos fundamentales, la mor- fología espacial y edificatoria propia de estas parcelas y de los ámbitos en los que se emplazan, incluida la parcelación origi- naria, salvo en los supuestos en los que el planeamiento porme- norizado o las correspondientes Normas Particulares de este Plan General estimen conveniente en aras a la incentivación de la rehabilitación tanto de dichos ámbitos como de las edifica- ciones existentes en los mismos.

Dichos objetivos no excluyen la posibilidad de la sustitui- ción de elementos o construcciones que se encuentren en situa- ción de ruina, y, cuando así lo establezca el planeamiento porme- norizado, de elementos añadidos carentes de valor, o, la ocupación o colmatación de parcelas inedicadas o subedifica- das, en las que las nuevas construcciones deberán respetar las pautas tipológicas fundamentales de las edificaciones y ele- mentos construidos originarios existentes en la zona.

Aurreko irizpideekin bat etorriz, lursail bakoitzaren berariazko eraikuntza erregimena nahiz hirigintza eremuko arau partikularrean nahiz plangintza xehatua ezarritakoa izango da.

B. Erabilera erregimen orokorra.

Nahiz hirigintza eremuko arau partikularrean nahiz plangintza xehatua ezartzen diren birdoitzeen kalterik gabe, «Rd.2 Eraikuntza irekiko bizitegi lursailentarako» ezarritako erabilera erregimena izango da aplikatzekoa. Haatik, debekatu egiten da industria erabilerak ezartzea, 1. kategoriakoak izan ezik.

C. Jabaria: Pribatua eta/edo ondare erabilerakoa.

2. Rd.2 Eraikuntza irekiko bizitegi lursaila.

Tipologia irekiko eraikuntza bereiziek edo albotik atxikitakoek okupatzen duten edo okupa dezaketen lursaila. Eraikuntza horiek horizontal eta bertikalki bildutako etxebizitzak jasoko dituzte, eta sargune bertikal komun bat izango dute. Eraikuntza modulu bat edo gehiago osatuko dute eta zazpi etxebizitza edo gehiago izango dituzte. Espazio eraiki gabeak izan ditzakete.

A. Eraikuntza erregimen orokorra.

* Nahiz hirigintza eremuko arau partikularrean nahiz plangintza xehatua ezarritako lursail bakoitzaren berariazko eraikuntza erregimena (eraikigarritasuna, lerrokadurak, sestrak, atzerapenak, solairu kopurua, altuera, etab.).

* Lursail berean eraikin bat baino gehiago eraiki ahal izango da, eta erabilera komuneko espazioak eta zerbitzu elementuak izango dituzten erkidegoak eratzea baimenduko da.

Oro har, sestrapeko profil eraikigarria bi (2) solairukoa izango da. Nolanahi ere, bai dagokion Arau Partikularrean bai plangintza xehatua baldintza murriztaileagoak ezar daitezke.

* Eraikuntzaren forma –sestra gaineko eta sestrapeko solairuko okupazioa barne– lursailaren ordenantza orokorren bitartez edo horietako bakoitzerako ordenantza zehatz baten bitartez arautu ahal izango da. Ordenantza zehatz hori dagokion Arau Partikularrean edo plangintza xehatua definituko da. Ordenantza zehatz horrek eta bertan bildutako aurreikuspenek xehetasun azterlanen berezko maila izango dute azterlan horien berezko gaitan eta esku hartzeko eremuan eragina duten alderdi guztietan. Horrenbestez, ordenantza eta aurreikuspen horiek, baldintza horietan, adierazitako xehetasun azterlanen bitartez aldatu ahal izango dira.

* Sestra gainean eraiki gabe dauden espazioek dagokien eraikinetarako ibilgailu sarbidearen funtzioak bete behar dituztenean, honako ezaugarriak eta baldintzak bete beharoko ditu urbanizazio elementuen antolamenduak: Indarrean dagoen legedian, Plan Orokor honetan bertan eta berau garatzeko sustatutako gainerako plan eta ordenantzetan ezartzen diren ezaugarriak eta gutxieneko dimentsio baldintzak.

B. Erabilera erregimena:

— Erabilera bereizgarrien eta onargarrien ezarpena «Hirigintza Arau» hauen 72. artikuluan ezarritako baldintzetara egokituko da.

— Erabilera bereizgarriak:

— Bizitegikoak.

Espazio ez eraikietan aurrekoen erabilera osagarriak –sarbi-deak, aparkalekuak, lorategiak, kirol instalazioak, gas likidotuen gordailuak, etab.–.

El régimen de edificación específico de cada parcela será el establecido, en sintonía con los criterios anteriores, bien en la correspondiente Norma Particular del Ámbito Urbanístico, bien en el planeamiento pormenorizado.

B. Régimen general de uso.

Sin perjuicio de los reajustes que, en su caso, se establezcan bien en la Norma Particular del Ámbito Urbanístico bien en el planeamiento pormenorizado, será de aplicación el régimen de uso establecido para las parcelas «Rd.2 Residencial de edificación abierta», prohibiéndose, eso sí, la implantación de usos industriales, con la sola excepción de los de categoría 1ª.

C. Dominio: Privado y/o patrimonial.

2. Rd.2 Parcela Residencial de edificación abierta.

Parcela ocupada u ocupable por edificaciones de tipología abierta, exentas o adosadas lateralmente, destinadas a viviendas agrupadas vertical y horizontalmente sobre un núcleo común de accesos verticales, configurando uno o varios módulos de edificación, y con un número de viviendas igual o superior a siete viv. Podrán o no disponer de espacios no edificados.

A. Régimen general de edificación.

* El régimen de edificación específico (edificabilidad, alineaciones, rasantes, retiros, número de plantas, altura, etc.) de cada parcela será el establecido bien en la correspondiente Norma Particular del Ámbito Urbanístico, bien en el planeamiento pormenorizado.

* En una misma parcela podrá ubicarse más de una edificación, autorizándose la constitución de comunidades, con espacios y elementos de servicio de uso común.

Con carácter general, y sin perjuicio de que bien la correspondiente Norma Particular, bien el planeamiento pormenorizado establezcan condiciones más restrictivas, el perfil edificatorio bajo rasante será de dos (2) plantas.

* La regulación de la forma de la edificación, incluyendo la ocupación en planta sobre y bajo rasante, podrá efectuarse mediante ordenanzas generales de parcela o a través de una ordenanza particular para cada una de ellas, definida en la Norma Particular correspondiente o en el planeamiento pormenorizado. Dicha ordenanza particularizada y las previsiones incluidas en la misma tendrán el rango propio de los Estudios de Detalle en todos aquellos extremos que incidan en cuestiones y en el campo de intervención propio de éstos. Aquellas ordenanzas y previsiones podrán ser, por lo tanto y en esas condiciones, modificadas mediante los citados Estudios de Detalle.

* Siempre que dispongan de espacios no edificados sobre rasante que deban cumplir funciones de acceso rodado a los edificios que las ocupan, la ordenación de los elementos de urbanización correspondientes deberá cumplimentar las características y requisitos dimensionales mínimos establecidos tanto en la legislación vigente, como en este mismo Plan y en los restantes planes y ordenanzas promovidos en su desarrollo.

B. Régimen de uso:

— La implantación de los usos característicos y admisibles se ajustará a las condiciones establecidas en el artículo 72 de estas «Normas Urbanísticas».

— Usos característicos:

— Residenciales.

En los espacios no edificados se autoriza la implantación de usos auxiliares del anterior –accesos, aparcamiento, jardines, instalaciones deportivas, depósitos de gases licuados, etc.–.

— Erabilera bateragarriak edo onargarriak:

— Hirugarren sektoreko erabilerak, bulego erabileren, hotel erabileren eta merkataritza erabileren modalitateetan «1.» eta «2.» kategoriakoak; goi kategoriako ostalaritza erabilerak eta osasun erabilerak eta laguntzakoak.

Kasu bakoitzean, erabilera horiek baimenduko badira, bizi-tegi erabilerekin bateragarriak direla justifikatu beharko da.

Halaber, adierazitakoak baino kategoria handiagoko merkataritza erabilerak ezartzea baimenduko da, baldin eta espresuki aurreikusten bada dagokion Arau Partikularrean edo plangintza xehatuan. Nolanahi ere, kasuan kasuko neurri zuzentzaileak zehaztu eta ezarri beharko dira etxebizitzetan eta dagokion erakuntzan baimendutako gainerako erabileretan era guztietako eragozpenak eta eraginak saihesteko.

— Industria erabilerak:

* «1.» kategoria: Etxebizitza erabilerarekin parekatutako erabilera gisa.

* «2.» kategoria: Soilik dagokien Arau Partikularrean edo garapen plangintzan horiek ezartzea baimentzen denean.

— Aparkalekua eta Garajea.

— Ekipamendu komunitarioa.

Bizitegi erabilerekin bateragarriak diren modalitateetan, haien aldamenean edo haiekin mugakide.

— Debekatutako erabilerak.

Aurreko modalitateetan sartzen ez direnak.

C. Jabaria: Pribatua eta/edo ondare erabilerakoa.

3. Rd.3 Garapen txikiko Bizitegi Lursaila.

Garapen txikiko tipologia irekiko eraikuntzek okupatzen dituzten edo okupa ditzaketen lursailak. Eraikuntzak bloke modukoak edo bakartuak izango dira, lehentasunez etxebizitza erabilerara zuzenduak, sargune komun bertikala edo sarbide autonomoa izango dute, eta eraikuntza modulu bat edo gehiago.

A. Eraikuntza erregimen orokorra.

* Nahiz Hirigintza Eremuko Arau Partikularrean nahiz Plan honen garapenean sustatutako plangintza xehatuan ezarritako lursail bakoitzaren berariazko eraikuntza erregimena (eraikigarritasuna, lerrokadurak, sestrak, atzerapenak, solairu kopurua, altuera, etab.). Lehendik eta finkatuta dauden garapen eta eraikuntzen kasuan, nahiz Plan Orokor honen arau partikularrean nahiz plangintza xehatuan ezarritakoari jarraituko zaio. Izan ere, tresna horiek lehengo baldintza orokorrekin bat ez zetozen ego-erak finkatu ahal izango dituzte.

* Lursail horiek lorategi eta espazio eraiki gabe erantsiak eduki beharko dituzte.

* Lursail berean eraikin bat baino gehiago eraiki eta/edo egon ahal izango da, eta erabilera komuneko espazioak eta zerbitzu elementuak izango dituzten erkidegoak eratzea baimenduko da.

* Bloke tipologiakoak badira, gehienez ere sei (6) etxebizitza izango dituzte. Etxebizitza kopurua handiagoa izan daiteke gaur egun finkatuta dauden elkarri atxikitako tipologiako eraikuntzak dituzten lursailen kasuan.

* Sestrapeko profil eraikigarria bi (2) solairukoa izango da. Nolanahi ere, bai dagokion Arau Partikularrean bai hura garatzen duen plangintzan baldintza murriztailegoak ezar daitezke.

— Usos compatibles o admisibles:

— Terciarios en las modalidades de oficinas, uso hotelero, usos comerciales «1ª» y «2ª» categorías; usos hosteleros de categoría superior-, terciarios diversos y usos sanitarios y asistenciales.

La autorización, en cada caso, de esos usos se entenderá condicionada a la justificación de su compatibilidad con los usos residenciales.

La implantación de usos comerciales por encima de las citadas categorías deberá estar prevista expresamente, bien en la correspondiente Norma Particular, bien en el planeamiento pormenorizado, estando condicionada a la previa determinación y adopción de las medidas correctoras que, en su caso, se consideren necesarias para evitar todo tipo de molestias y afecciones en las viviendas y en los restantes usos autorizados en la edificación correspondiente.

— Industriales:

* «1ª» categoría: Como usos asimilados al de vivienda.

* «2ª» categoría: Exclusivamente cuando se autorice su implantación en la Norma Particular correspondiente o en el planeamiento pormenorizado.

— Aparcamiento y Garaje.

— Equipamiento comunitario.

En las modalidades compatibles en contigüidad o colindancia con los usos residenciales.

— Usos prohibidos.

Los no incluidos en las modalidades anteriores.

C. Dominio: Privado y/o patrimonial.

3. Rd.3 Parcela Residencial de bajo desarrollo.

Parcelas ocupadas u ocupables por edificaciones de tipología abierta de bajo desarrollo, bien en bloque, bien aislada, destinadas preferentemente a uso de vivienda, con acceso bien mediante un núcleo común vertical, bien autónomo, y con uno o varios módulos de edificación.

A. Régimen general de edificación.

* El régimen de edificación específico (edificabilidad, alineaciones, retiros, número de plantas, altura, etc.) de cada parcela establecido bien en la correspondiente Norma Particular del Ámbito Urbanístico, bien en el planeamiento pormenorizado promovido en desarrollo de este Plan. Tratándose de los desarrollos y edificaciones preexistentes y consolidados se estará a lo establecido bien en las Normas Particulares de este Plan General, bien en el planeamiento pormenorizado, que podrán consolidar situaciones no acordes con las anteriores condiciones generales.

* Deberán disponer, en todo caso, de jardines o espacios no edificados anejos.

* En una misma parcela podrán existir y/o emplazarse más de una edificación, autorizándose la constitución de comunidades, con espacios y elementos de servicio de uso común.

* En el supuesto de tratarse de tipología de bloque, el número máximo de viviendas será de seis (6) viv. Dicha cantidad podrá ser superior en el supuesto de parcelas con edificaciones de tipología adosada existentes y consolidadas.

* Sin perjuicio de que la correspondiente Norma Particular o el planeamiento de desarrollo establezcan condiciones más restrictivas, el perfil de edificación máximo bajo rasante será de dos (2) plantas.

* Eraikuntzaren forma –sestra gaineko eta sestrapeko solairuko okupazioa barne– lursailaren ordenantza orokorren bitartez edo horietako bakoitzerako ordenantza zehatz baten bitartez arautu ahal izango da. Ordenantza zehatz hori dagokion Arau Partikularrean edo plangintza xehatua definituko da. Ordenantza zehatz horrek eta bertan bildutako aurreikuspenek xehetasun azterlanen berezko maila izango dute azterlan horien berezko gaitan eta esku hartzeko eremuan eragina duten alderdi guztietan. Horrenbestez, ordenantza eta aurreikuspen horiek, baldintza horietan, adierazitako xehetasun azterlanen bitartez aldatu ahal izango dira.

* Sestra gainean eraiki gabe dauden espazioek dagokien eraikinetarako ibilgailu sarbidearen funtzioak bete behar dituztenean, honako ezaugarriak eta baldintzak bete beharko ditu urbanizazio elementuen antolamenduak: Indarrean dagoen legedian, Plan Orokor honetan bertan eta berau garatzeko sus-tatutako gainerako plan eta ordenantzetan ezartzen diren ezaugarriak eta gutxiengo dimentsio baldintzak.

B. Erabilera erregimen orokorra.

Arau hauek «RD.2 Eraikuntza Irekiko Bizitegi Lursailak» motako bizitegi lursailentarako ezarritako erabilera erregimena aplikatuko da, ondorengo kasuan izan ezik:

— Soilik izango dira industria erabilera onargarriak 1. kate-goriakoak.

C. Jabaria: Pribatua eta/edo ondare erabilerakoa.

4. I.1 Industria Erabilerako Lursaila.

Funtzionalki eta juridikoki enpresa bati edo gehiagori loturik dauden tipologia intentsiboko edo bakartuko industria eraikuntzak batik bat ezartzera zuzendutako lursailak.

A. Eraikuntza erregimen orokorra.

* Nahiz Hirigintza Eremuko Arau Partikularrean nahiz Plan hau garatzeko xedatutako plangintza xehatua ezarritako lursail bakoitzaren berariazko eraikuntza erregimena (eraikigarritasuna, lerrokadurak, sestrak, atzerapenak, solairu kopurua, altuera, etab.).

* Halaber, adierazitako arau partikularrean eta plangintza xehatua lursail zatiketari, eraikuntzen banaketari –baita banaketa horizontalari ere– eta lursaila eta eraikuntza jarduera bereiziek okupatzeari buruz xedatutakoari jarraituko zaio.

* Lursailentako bakoitzak ibilgailuentzako zuzeneko sarbidea izan beharko du inguruko bide publikoetatik edo eraiki gabeko espazio pribatuetatik –espazio horien jabetza espazio horietara ematen duten lursaillekin edo lokalekin partekatua izan daiteke–, eta zamalanentarako espazioa ere izan beharko du; espazio horiek nahiz Plan Orokor honetan nahiz plangintza xehatua ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

* Eraikuntzaren forma –sestra gaineko eta sestrapeko solairuko okupazioa barne– lursailaren ordenantza orokorren bitartez edo horietako bakoitzerako ordenantza zehatz baten bitartez arautu ahal izango da. Ordenantza zehatz hori dagokion Arau Partikularrean edo plangintza xehatua definituko da. Ordenantza zehatz horrek eta bertan bildutako aurreikuspenek xehetasun azterlanen berezko maila izango dute azterlan horien berezko gaitan eta esku hartzeko eremuan eragina duten alderdi guztietan. Horrenbestez, ordenantza eta aurreikuspen horiek, baldintza horietan, adierazitako xehetasun azterlanen bitartez aldatu ahal izango dira.

* Sestra gainean eraiki gabeko espazioek dagokien eraikinetarako ibilgailu sarbidearen funtzioak bete behar dituztenean, honako ezaugarriak eta baldintzak bete beharko ditu urbaniza-

* La regulación de la forma de la edificación, incluyendo la ocupación en planta sobre y bajo rasante, podrá efectuarse mediante ordenanzas generales de parcela o a través de una ordenanza particular para cada una de ellas, definida en la Norma Particular correspondiente o en el planeamiento pormenorizado. Dicha ordenanza particularizada y las previsiones incluidas en la misma tendrán el rango propio de los Estudios de Detalle en todos aquellos extremos que incidan en cuestiones y en el campo de intervención propio de éstos. Aquellas ordenanzas y previsiones podrán ser, por lo tanto y en esas condiciones, modificadas mediante los citados Estudios de Detalle.

* Siempre que dispongan de espacios no edificados sobre rasante que deban cumplir funciones de acceso rodado a los edificios que las ocupan, la ordenación de los elementos de urbanización correspondientes deberá cumplimentar las características y requisitos dimensionales mínimos establecidos tanto en la legislación vigente, como en este mismo Plan y en los restantes planes y ordenanzas promovidos en su desarrollo.

B. Régimen general de uso.

Se aplicará el régimen de uso establecido en estas Normas para las parcelas residenciales de tipología «Rd.2 Residencial de Edificación Abierta» con la siguiente salvedad:

— Tendrán la condición de usos industriales admisibles, exclusivamente, los de 1ª categoría.

C. Dominio: Privado y/o patrimonial.

4. I.1 Parcela Industrial.

Parcelas destinadas a la implantación de, preferentemente, edificaciones industriales de tipología intensiva o aislada, vinculadas funcional y jurídicamente a una o a varias empresas.

A. Régimen general de edificación.

* El régimen de edificación específico (edificabilidad, alineaciones, retiros, número de plantas, altura, etc.) de cada parcela será el establecido bien en la correspondiente Norma Particular del Ámbito Urbanístico, bien en el planeamiento pormenorizado promovido en desarrollo de este Plan.

* También se estará a lo dispuesto en dichos Norma Particular y planeamiento pormenorizado en lo referente a la parcelación, la división de las construcciones, incluso en cuanto a su división horizontal, y a la ocupación de la parcela y de la edificación por actividades diferenciadas.

* Cada una de las parcelas deberá disponer de acceso rodado directo desde las vías públicas perimetrales o desde espacios no edificados privados -la propiedad de éstos podrá ser compartida por los titulares de las diferentes parcelas o locales que den frente a ellos-, y, del correspondiente espacio de carga y descarga; estos espacios deberán cumplimentar los requisitos establecidos bien en este Plan bien en el planeamiento pormenorizado.

* La regulación de la forma de la edificación, incluyendo la ocupación en planta sobre y bajo rasante, podrá efectuarse mediante ordenanzas generales de parcela o a través de una ordenanza particular para cada una de ellas, definida en la Norma Particular correspondiente o en el planeamiento pormenorizado. Dicha ordenanza particularizada y las previsiones incluidas en la misma tendrán el rango propio de los Estudios de Detalle en todos aquellos extremos que incidan en cuestiones y en el campo de intervención propio de éstos. Aquellas ordenanzas y previsiones podrán ser, por lo tanto y en esas condiciones, modificadas mediante los citados Estudios de Detalle.

* Siempre que dichas parcelas dispongan de espacios no edificados sobre rasante que deban servir de acceso rodado a los edificios que las ocupan, la ordenación de los elementos de

zio elementuen antolamenduak: Indarrean dagoen legedian, Plan Orokor honetan bertan eta berau garatzeko sustatutako gainerako plan eta ordenantzetan ezartzen diren ezaugarriak eta gutxieneko dimentsio baldintzak.

B. Erabilera erregimen orokorra.

— Erabilera bereizgarriak:

— Industria erabilerak.

— Erabilera bateragarriak edo onargarriak:

— Bizitegikoak, lursaila okupatzen duen industriaren erabilera osagarri gisa besterik ez. Erregistroan hari lotuko zaio, eta 2.000 m²-tik gorako lursaileko etxebizitza bat (1) izango da gehienez ere.

— Hirugarren erabilerakoak.

* Merkataritza erabilerak, 4. kategoria arte, hori ere barne.

* Bulegoak.

Industria jarduerekin lotzen ez badira ere, kanpoko jende asko erakar dezaketenak izan ezik.

* Hotel eta ostalaritza erabilerak.

Espresuki baimentzen duenean bai dagokion Arau Partikularrak, bai plangintza xehatuak.

* Jolas erabilerak, baldin eta kanpoko jende asko erakartzen ez badute.

— Aparkalekua eta Garajea.

— Ekipamendu komunitarioa.

Industria jarduerekin lotzen ez den kanpoko jende asko erakartzen ez duten modalitate guztietan.

— Debekatutako erabilerak:

— Aurreko modalitateetan sartzen ez direnak.

C. Jabaria: Pribatua eta/edo ondare erabilerakoa.

5. I.2 Hirugarren Sektoreko Lursaila.

Funtzionalki eta juridikoki enpresa bati edo gehiagori loturik dauden tipologia intentsiboko edo bakartuko hirugarren sektoreko erabileretarako eraikuntzak batik bat ezartzera zuzendutako lursailak.

A. Eraikuntza erregimen orokorra.

* Lursail hauetan eraikuntzak erregimen arauemaile berezi bati erantzungo dio; erregimen horren arautzea Plan Orokor honen dagokion araudi partikularrean edo, hala badagokio, plangintza xehatuan ezarriko da, esleitutako berariazko erabilera baldintzen arabera.

* Eraikuntzaren forma –sestra gaineko eta sestrapeko solairuko okupazioa barne– lursailaren ordenantza orokorren bitartez edo horietako bakoitzerako ordenantza zehatz baten bitartez arautu ahal izango da. Ordenantza zehatz hori dagokion Arau Partikularrean edo plangintza xehatuan definituko da. Ordenantza zehatz horrek eta bertan bildutako aurreikuspenek xehetasun azterlanen berezko maila izango dute azterlan horien berezko gaitetan eta esku hartzeko eremuan eragina duten alderdi guztietan. Horrenbestez, ordenantza eta aurreikuspen horiek, baldintza horietan, adierazitako xehetasun azterlanen bitartez aldatu ahal izango dira.

* Sestra gainean eraiki gabeko espazioek dagokien eraikinetarako ibilgailu sarbidearen funtzioak bete behar dituztenean, honako ezaugarriak eta baldintzak bete beharko ditu urbanizazio elementuen antolamenduak: Indarrean dagoen legedian,

urbanización correspondientes, deberá cumplimentar las características y requisitos dimensionales mínimos establecidos al respecto por la legislación vigente, y este mismo Plan y en los restantes planes y ordenanzas promovidos en su desarrollo.

B. Régimen general de uso.

— Usos característicos:

— Industriales.

— Usos compatibles o admisibles:

— Residenciales, exclusivamente como uso auxiliar de la industria que ocupe la parcela, a la que estará registralmente vinculada, con un máximo de una (1) vivienda por parcela de dimensión superior a 2.000 m².

— Terciarios.

* Comerciales, hasta 4ª categoría, incluida.

* Oficinas.

Se exceptúan las que no estando relacionadas con actividades industriales puedan dar lugar a una afluencia de público externo significativa.

* Hoteleros y hosteleros.

Cuando lo autorice expresamente bien la Norma Particular correspondiente, bien el planeamiento pormenorizado.

* Recreativos, siempre que no generen una afluencia de público externa significativa.

— Aparcamiento y Garaje.

— Equipamiento comunitario.

En todas las modalidades que no den lugar a una afluencia importante de público no relacionado con las actividades industriales.

— Usos prohibidos:

— Los no incluidos en las modalidades anteriores.

C. Dominio: Privado y/o patrimonial.

5. I.2 Parcela Terciaria.

Parcelas destinadas a la implantación de edificaciones destinadas a usos preferentemente terciarios, de tipología intensiva o aislada, vinculadas funcional y jurídicamente a una o a varias empresas.

A. Régimen general de edificación.

* Parcelas en las que la edificación responderá a un régimen normativo singularizado, cuya regulación se establece bien en la correspondiente Norma Particular de este Plan, bien en el planeamiento pormenorizado, en función de las condiciones específicas de uso asignadas.

* La regulación de la forma de la edificación, incluyendo la ocupación en planta sobre y bajo rasante, podrá efectuarse mediante ordenanzas generales de parcela o a través de una ordenanza particular para cada una de ellas, definida en la Norma Particular correspondiente o en el planeamiento pormenorizado. Dicha ordenanza particularizada y las previsiones incluidas en la misma tendrán el rango propio de los Estudios de Detalle en todos aquellos extremos que incidan en cuestiones y en el campo de intervención propio de éstos. Aquellas ordenanzas y previsiones podrán ser, por lo tanto y en esas condiciones, modificadas mediante los citados Estudios de Detalle.

* Siempre que dispongan de espacios no edificados sobre rasante que deban servir de acceso rodado a los edificios que las ocupan, la ordenación de los elementos de urbanización correspondientes, deberá cumplimentar las características y requisitos

Plan Orokor honetan bertan eta berau garatzeko sustatutako gainerako plan eta ordenantzetan ezartzen diren ezaugarriak eta gutxieneko dimentsio baldintzak.

B. Erabilera erregimen orokorra.

- Erabilera bereizgarriak:
- Hirugarren erabilera.
- Erabilera onargarriak:
- Industria erabilera.

* «1.» kategoria: Etxebizitza erabilerarekin parekatutako erabilera gisa.

* «2.» kategoria: Soilik dagokien Arau Partikularrean edo garapen plangintzan horiek ezartzea baimentzen denean.

— Etxebizitza, dagokion arau partikularrean edo plangintza xehatua ezarritako baldintzetan, baldin eta lursaileko hirugarren sektoreko erabilera bereizgarriekin bateragarria bada. Gehienez ere, etxebizitza bat (1) lursail bakoitzeko.

- Garajea.
- Ekipamendu komunitarioa.

Hirugarren sektoreko erabilerekin bateragarriak diren modalitateetan.

— Debekatutako erabilerak: Aurreko modalitateetan sartzan ez direnak.

C. Jabaria: Pribatua eta/edo ondare erabilerakoa.

6. C.1 Bide komunikazioen sarea.

Tokiko komunikazio azpiegiturak eta orokorrek osatzen dituzten (azpi)guneak, erabiltzen den mugikortasun bitartekoa dena dela ere (ibilgailuena edo ez; motorizatua edo ez; oinezkoak, bizikletak, automobilak; garraio publikoa edo pribatua; etab.), baldin eta komunikazio eta mugikortasun horiek bide ardatz edo elementu linealen bat behar badute edo horretaz baliatzen badira (errepideak eta galtzada eta espaloidun kaleak; oinezkoen sarea; bidegorria; etab.). Dagozkion ondorioetarako, erabilera xehatuko azpiegitura hau titulartasun publikokoa da.

Zehazten ez diren eraikigarritasun erregimeneko eta erabilera xehatuko lursailen erabilera 8. artikuluan –gune analogoetarako– eta 13. artikuluan adierazitako Hirigintza Erregimen Orokorrean ezarritako da.

C.1.1. Hiriarteko errepidea.

A. Eraikuntza erregimen orokorra:

Gune hauetan ez da baimenduko eraikitzea; salbuespenak izango dira elementu funtzionalak eta errepideen berezko erabilera osagarriak hartuko dituzten eraikinak, betiere indarrean dagoen legediaren barruan.

B. Erabilera erregimen orokorra.

- Erabilera bereizgarriak:
- Ibilgailuen zirkulazioa.
- Erabilera onargarriak:

Erabilera hauen erabilera osagarriak, betiere indarrean dagoen sektoreko legediaren arabera, hala nola artapen eta ustiapen eremuak, autobus geltokiak, ibilgailuak pisatzeko basculak, sorospen postuak, erregaiez hornitzeko unitateak eta antzekoak.

Zerbitzu azpiegiturak: Sestrapean soilik.

• Debekatutako erabilerak: Aurreko modalitateetan sartzan ez direnak.

dimensionales mínimos establecidos al respecto en la legislación vigente, y en este mismo Plan y en los restantes planes y ordenanzas promovidos en su desarrollo.

B. Régimen general de uso.

- Usos característicos:
- Terciarios.
- Usos admisibles:
- Industriales.

* «1ª» categoría: Como usos asimilados al de vivienda.

* «2ª» categoría: Exclusivamente cuando se autorice su implantación en la Norma Particular correspondiente o en el planeamiento pormenorizado.

— Vivienda en las condiciones establecidas en la correspondiente Norma Particular o en el planeamiento pormenorizado, siempre que la misma sea compatible con los usos terciarios característicos de la parcela, con un máximo de una (1) vivienda por parcela.

- Garaje.
- Equipamiento comunitario.

En las modalidades compatibles con los usos terciarios.

— Usos prohibidos: Los no incluidos en las modalidades anteriores.

C. Dominio: Privado y/o patrimonial.

6. C.1 Red de comunicación viaria.

Subzonas conformadas por las infraestructuras locales y también generales de comunicación, cualquiera que sea el medio de movilidad que se utilice (rodado o no; motorizado o no; peatonal, bicicleta, automóvil; transporte público o privado; etc.), y siempre que dichas comunicación y movilidad requieran y se sirvan de un eje o elemento viario lineal (carretera y calles con, en su caso, su calzada y aceras; red peatonal general; vías ciclistas; etc.). A los efectos correspondientes, esta subzona de uso pormenorizado es de titularidad pública.

Las determinaciones del régimen de edificación y uso de las parcelas de uso pormenorizado que no se especifican, se remiten al Régimen Urbanístico General establecido en el Art. 8 para las zonas análogas, y a lo dispuesto en el Art. 13.

C.1.1. Carretera Interurbana.

A. Régimen general de edificación:

Excluida, con excepción de la implantación de los elementos funcionales y de los edificios destinados a albergar los usos auxiliares propios de las carreteras, conformes a la legislación sectorial vigente.

B. Régimen general de uso.

- Usos característicos:
- Circulación rodada.
- Usos admisibles:

Usos auxiliares de los usos propiciados, conformes a la legislación sectorial vigente como áreas de conservación y explotación, paradas de autobuses, básculas de pesaje, puestos de socorro, estaciones de servicio, unidades de suministro de combustible y otros similares.

Infraestructuras de servicios: Exclusivamente bajo rasante.

• Usos prohibidos: Los no incluidos en las modalidades anteriores.

C.1.2. Hiri bideak.

A. Eraikuntza erregimen orokorra:

Ez da eraikuntza baimentzen. Salbuespena izango da baldintza horietan baimendutako erabileretara zuzendutako sestrapeko eraikinak eta sestra gainean herri barruko bideen berezko elementu funtzionalak.

B. Erabilera erregimen orokorra.

- Erabilera bereizgarriak:

Ibilgailuen zirkulazioa.

- Erabilera onargarriak:

— Oinezkoen zirkulazioa. Erabilera hauen erabilera osagarriak, hala nola autobus geltokiak eta antzekoak.

— Zerbitzu azpiegiturak: Sestrapean soilik.

— Aparkalekuak.

— Garajea. Soilik sestrapean, haren ezarpena espresuki definitzen ez badu plangintza xehatuak. Xehetasun azterketa exijituko da. Titulartasun pribatukoak badira, «administrazio kontzesio» erregimenean egingo da.

- Debekatutako erabilerak: Aurreko modalitateetan sartzen ez direnak.

7. C.2 Trenbide komunikazioen sarea.

Trenbide komunikazioen azpiegitura orokorrek eta horien berezko instalazio eta elementuek eta/edo haien zerbitzura daudenek (geltokiak eta geralekuak, etab.) osatzen duten azpiguenea.

A. Eraikuntza erregimen orokorra:

Gune honetan bereizgarriak eta onargarriak diren trenbideko erabilerei lotutako eraikuntzak eta instalazioak besterik ez dira baimentzen, indarrean dagoen arloko legedian ezarritako baldintzetan.

Halaber, baimentzen dira lursail honetako erabilera bateragarri edo onargarriekin lotutako eraikin eta instalazioak.

B. Erabilera erregimen orokorra.

— Erabilera bereizgarriak:

— Trenbideak.

— Erabilera onargarriak:

— Trenbide erabilera osagarriak, sektorean indarrean dagoen legediak ezarritakoaren arabera.

— Garajea, baldin eta trenbide erabilerarekin bateragarria bada.

— Debekatutako erabilerak:

— Aurreko modalitateetan sartzen ez direnak.

C. Jabaria.

Dagozkion ondorioetarako, erabilera xehatuko azpigune hau titulartasun publikokoa da.

8. C.3. Aparkalekuak.

Garaje eraikuntzak egitera eta dagozkion erabilera osagarrietara zuzendutako lursaila. Horrenbestez, erabilera edo xede hori da lursailaren kalifikazio xehatua zehazteko erreferentzia puntu nagusia.

C.1.2. Viario Urbano.

A. Régimen general de edificación:

No se autoriza la edificación, con excepción de las construcciones bajo rasante destinadas a los usos autorizados en esas condiciones, y de la implantación sobre rasante de los elementos funcionales propios de las vías urbanas.

B. Régimen general de uso.

- Usos característicos:

— Circulación rodada.

- Usos admisibles:

— Circulación peatonal. Usos auxiliares de los usos propios, como paradas de autobuses y otros similares.

— Infraestructuras de servicios: Exclusivamente bajo rasante.

— Aparcamiento.

— Garaje. Exclusivamente bajo rasante si su implantación no está definida expresamente por el planeamiento pormenorizado, se exigirá la formulación de un Estudio de Detalle. Si son de titulariza privada se realizará en régimen de «concesión administrativa».

- Usos prohibidos: Los no incluidos en las modalidades anteriores.

7. C.2. Red de comunicación ferroviaria.

Subzona conformada por las infraestructuras generales de comunicación ferroviaria, incluidos los elementos y las instalaciones propios y/o al servicio de las mismas (estaciones y apeaderos, etc.).

A. Régimen general de edificación.

Se autorizan las edificaciones e instalaciones vinculadas a los usos ferroviarios, así como a los usos auxiliares de los mismos, en las condiciones establecidas en la legislación sectorial vigente.

Se autorizan asimismo las edificaciones e instalaciones vinculadas a los usos compatibles o admisibles en esta parcela.

B. Régimen general de uso.

— Usos característicos:

— Ferroviario.

— Usos admisibles:

— Usos auxiliares del ferroviario, conforme a lo dispuesto en la legislación sectorial vigente.

— Garaje, siempre que sea compatible con el ferroviario.

— Usos prohibidos:

— Los no incluidos en las modalidades anteriores.

C. Dominio.

A los efectos correspondientes, esta subzona de uso pormenorizado es de titularidad pública.

8. C.3. Aparcamiento.

Parcela destinada a la edificación bajo rasante destinada únicamente al uso de aparcamiento o garaje, además de a los correspondientes usos auxiliares del anterior, de manera que ese destino constituye el referente principal para la determinación de la calificación pormenorizada de la misma.

A. Eraikuntza erregimen orokorra.

Sestranean garajera zuzendutako eraikinak baimentzen dira lursail hauetan, Arau Partikularretan zein plangintza xehatuan kasu bakoitzerako ezarritako baldintza eta parametroetan.

B. Erabilera erregimen orokorra.

— Erabilera bereizgarriak:

— Garajea.

— Erabilera onargarriak:

— Garajeekin bateragarriak diren erabilera osagarriak, baldin eta, beren izaera eta garrantzia kontuan hartuta, ingurunearekin bateragarriak badira.

— Debekatutako erabilerak:

— Gainerako guztiak.

C. Jabaria.

Lursail honek erabilera publiko edo pribatuko azpigune baten berezko izaera edukiko du, garajearen eta haren titulartasunaren izaera publikoa edo pribatua kontuan hartuta.

9. C.4. Portuaren Espazioa.

Portu gune global batean integratutako azpigunea, bertan berezkoak diren erabilera eta jardueretara zuzenduta.

A. Eraikuntza erregimen orokorra.

Erregimen hau arlo honetan indarrean dagoen legediak eta dagokion antolamendu xehatuak –Plan Orokor honen Arau Partikularrean nahiz plangintza xehatuan txertatuta– kasu bakoitzerako ezarritakoa izango da.

B. Erabilera erregimen orokorra.

— Erabilera bereizgarriak:

— Portu erabilerak.

— Erabilera bateragarriak edo onargarriak:

— Arlo honetan indarrean dagoen legedian zein dagokien antolamendu xehatuan aurreikusitakoak.

— Debekatutako erabilerak:

— Aurreko modalitateetan sartzen ez direnak.

C. Jabaria: Publikoa.

10. EL.1 Hiri espazio libreak.

Halakotzat joko dira mota honetako espazioen sare orokorra eta tokikoa, dagozkien hurrenez hurrengo legezko estandarrek aplikatzearen ondoriozkoa, antolatzearen ondorioetarako indarrean dagoen hirigintzako legedian ezarrita dauden ezaugarriak (dimentsionamendua, etab.) betetzen dituzten espazio libreak.

Parkeak/lorategiak > 1.000 m² Ø 30m.

Oinezkoentzako eremuak > 1.000 m² Ø 30m.

Jolas eta aisialdi guneak > 200 m² Ø 12m.

A. Eraikuntza erregimen orokorra.

* Los estudios de detalle que desarrollen o reajusten la ordenación de ámbitos territoriales coincidentes con unidades de ejecución previamente delimitadas, deberán precisar, en el caso de que el planeamiento pormenorizado de referencia lo haya definido de forma insuficiente, el aprovechamiento urbanístico asignado a las diferentes parcelas edificables, dentro del marco normativo establecido al respecto por el citado planeamiento pormenorizado y por el presente proyecto.

* Asimismo, incorporarán el resto de las determinaciones a las que se hace referencia en el apartado anterior para los planes especiales y parciales, en el caso de que las mismas no hubiesen sido definidas con la precisión suficiente con anterioridad, y, si fuese necesario, esquemas y características de los trazados de las redes de servicios urbanos.

* Los estudios de detalle promovidos por particulares deberán incluir en su documentación la identificación tanto de los propietarios afectados como de los residentes legales que hayan de ser desalojados, con los requisitos establecidos para los planes parciales y especiales de iniciativa particular.

Artículo 35. Medidas protectoras, correctoras y compensatorias incluidas en el planeamiento de desarrollo.

1. El planeamiento de desarrollo deberá tener en cuenta los condicionantes ambientales y justificar las medidas adoptadas para la corrección de los impactos identificados en el apartado 5 del Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental, de acuerdo con las medidas protectoras, correctoras y compensatorias incluidas en el apartado 6 de dicho estudio.

2. El planeamiento de desarrollo y los proyectos de ejecución de obras que de él se deriven deberá incluir un programa de supervisión, vigilancia e información con los contenidos establecidos en el Capítulo 4 Título Séptimo de las presentes Normas, cuyo cumplimiento deberá justificarse por la dirección de obra como condición necesaria para la recepción de la urbanización o la concesión de la licencia de primera ocupación.

3. Aquellas medidas que se puedan presupuestar, deberán incluirse como unidad de obra, con su correspondiente partida económica en los proyectos. Las que no puedan presupuestarse, se incluirán en el Pliego de Condiciones Técnicas.

CAPITULO 4. EJECUCIÓN DEL PLANEAMIENTO GENERAL

Artículo 36. Criterios generales.

1. La ejecución de las previsiones de ordenación contenidas tanto en este Plan como en el planeamiento que se promueva en su desarrollo, se ajustará a lo dispuesto en la legislación urbanística vigente y en esos mismos planes.

2. Baldin eta hirigintza antolamendua gauzatzeak berarekin bateraezinak diren higiezinak okupatzen dituzten eta/edo haietan kokatuta dauden legezko egoiliarak eta jarduneko ekonomia jarduerak kanpoan uztea eskatzen badu, birkokapen kontuen gainean indarrean dagoen hirigintza legeriak xedatutako bete beharko da.

3. Aurretik zegoen eta orain finkatzen den plangintzan jasotako aurreikuspenak betetzeko, hain zuzen ere, Plan Orokor honetan eta aurreko plangintzan zuzkidura publikora bideratutako lurak erosteari eta jabari publikora transmititzeari buruzko aurreikuspenak betetzeko, plangintza honetan eta indarrean dagoen legedian, uztailearen 4ko 1.093/97 Errege Dekretua barne, finkatutako irizpideak bete beharko dira.

37. artikulua. Hiri lurreko hirigintza antolamendua gauzatzeko araubidea.

1. Hirigintza antolamendua gauzatze modalitateak.

Hiri lurrean aurreikusitako hirigintza antolamendua indarreko legerian araututa dauden eta, planteatutako helburuak lortzeko asmoz, kasu bakoitzean egokituz jotzen diren jarduketak ereductara egokituko da.

2. Jarduketa isolatuak.

A. Jarduketa isolatuaren erregimenera atxikita egongo dira jarduketa isolatutzat hartzeko indarreko legerian xedatutako eskakizunak betetzeagatik haiei Plan honetan, bere garapenerako sustatzen den plangintzan edo aurreikusitako antolamendua gauzatze fasean lotzen zaizkien orubeak eta lursailak eta baita modu osagarrian edo aldi berean dagokion eraikuntza proiektuaren formulazioari eta izapidetzeari lotzen zaizkien ere.

B. Testuinguru horren barruan eraikuntza jarduketa udalari hornidura publikotarako lurak lagatzearekin osatu behar denean, sustatu eta onartu beharreko birpartzelazio proiektuaren esparruan edo helburu hori lortzeko egokituz jotzen den legezko beste edozein mekanismoren bitartez gauzatuko da lagapena, eraikuntza proiektua izapidetzearekin eta/edo derrigorrezko udal lizentzia ematearekin batera edota horren osagarri gisa.

2/2006 Legearen 136. artikuluan aurreikusitako barne birpartzelazioa honako kasu hauetan aplikatu ahal izango da: Zatitugabekoen egoeretan edo gutxieneko lursailaren ordenantzako baldintzak betetzeko hainbat lursail elkartu behar direnean.

C. Modu berean jokatu da eraikuntza jarduketa urbanizazio kargak gauzatu eta ordaintzearekin osatu behar denean, komeni den kasuetan urbanizazioko obra osagarrien proiektua formulatzearen kalterik gabe.

D. Edozein kasutan, udal lizentzia hori ematea lagapen hura aurretik eta/edo aldi berean formalizatzearen baitan eta karga horiek aurretik edo aldi berean gauzatu eta ordaintzearen baitan egongo da, xede horretarako egokituz jotzen diren berme edo abalak finkatzea barne.

3. Hornidura jarduketak.

A. Hornidura jarduketa deiturikoen erregimenera atxikita egongo dira eraikigarritasun haztatua handitzearen ondorioz hiri lur finkatugabetzat jotzeko indarreko legerian xedatutako eskakizunak betetzeagatik eta zuzkidura karga kentzeko xedea izateagatik haiei Plan honetan, bere garapenerako sustatzen den plangintzan edo aurreikusitako antolamendua gauzatze

2. Siempre que la ejecución de la ordenación urbanística requiera el desalojo de residentes legales y de actividades económicas en funcionamiento que ocupen y/o se ubiquen en inmuebles incompatibles con aquella, se estará a lo dispuesto en la legislación urbanística vigente en materia de realojo.

3. A los efectos de la ejecución de las previsiones contenidas en el planeamiento preexistente y que ahora se consolida, y en concreto de la adquisición y transmisión al dominio público de los terrenos destinados tanto en este Plan General como en el planeamiento anterior a dotaciones públicas, se actuará de conformidad con los criterios establecidos, bien en ese planeamiento, bien en la legislación vigente, incluido el Real Decreto 1.093/97, de 4 de julio.

Artículo 37. Régimen de ejecución de la ordenación urbanística en el suelo urbano.

1. Modalidades de ejecución de la ordenación urbanística.

La ejecución de la ordenación urbanística prevista en el suelo urbano se adecuará a los tipos de actuación que, de los regulados en la legislación vigente y a los efectos de la consecución de los objetivos planteados, se estime oportuno en cada caso.

2. Actuaciones aisladas.

A. Se entenderán sujetos al régimen de las actuaciones aisladas los solares y parcelas que, por reunir los requisitos establecidos en la legislación vigente para su consideración como tal, se vinculan a las mismas bien en este Plan, bien en el planeamiento que se promueva en su desarrollo, bien en la fase de ejecución de la ordenación prevista, incluso complementaria o simultáneamente a la formulación y tramitación del correspondiente proyecto de edificación.

B. Siempre que, en ese contexto, la actuación edificatoria deba complementarse con la cesión al Ayuntamiento de terrenos destinados a dotaciones públicas, dicha cesión será formalizada bien en el marco del proyecto de reparcelación a promover y aprobar en su caso, bien mediante cualquier otro mecanismo legal que se considere adecuado para la consecución de dicho fin, simultánea y/o complementariamente a la tramitación del correspondiente proyecto de edificación y a la concesión de la preceptiva licencia municipal.

La reparcelación interior prevista en el artículo 136 de la Ley 2/2006, podrá ser aplicada tanto a situaciones de proindivisión como cuando sea necesaria la agrupación de diversas parcelas para cumplir las condiciones de la ordenanza de parcela mínima.

C. Se actuará de igual manera en el supuesto de que la actuación edificatoria deba complementarse con la ejecución y abono de cargas de urbanización, sin perjuicio de la formulación del correspondiente proyecto de obras complementarias de urbanización en los casos en los que resulte conveniente.

D. En todo caso, la concesión de la dicha licencia municipal se condicionará a la previa y/o simultánea formalización de aquella cesión, y a previa o simultánea ejecución y abono de estas cargas, incluida la fijación de las garantías o avales que con ese fin se estimen adecuados.

3. Actuaciones de dotación.

A. Se entenderán sujetos al régimen de las denominadas actuaciones de dotación los terrenos y parcelas que, por reunir los requisitos establecidos en la legislación vigente para su consideración como suelo urbano no consolidado por incremento de la edificabilidad urbanística ponderada y estando dirigidas al levantamiento de la correspondiente carga dotacional, se vincu-

fasean lotzen zaizkien lurak eta lursailak eta baita modu osagarrian edo aldi berean dagokion eraikuntza proiektuaren formulazioari eta izapidetzeari lotzen zaizkienak ere.

B. Baldin eta planteatutako antolamendua gauzatzeko asmoz egokitzen jotzen bada birpartzelazio proiektua egitea, aurrez mugatuko da proiektuaren xede izan behar duen egikaritze unitatea.

Hura prestatzea eta onartzea eta, hala dagokionean, urbanizazioko obra proiektua prestatzea eta onartzea, eraikuntza proiektuaren aurretik eta eraikuntzarako udal lizentzia eman aurretik egin behar dira.

C. Aipaturiko birpartzelazio proiektuak eta urbanizazio obrak prestatu eta onartzea beharrezkoa izango ez balitz, Liburu honetako 23. artikuluan xedatutako betebeharrak eraikuntzarako udal lizentzia eman aurretik eta/edo aldi berean bete beharko dira.

4. Jarduketa integratuak.

A. Jarduketa integratuen erregimenera atxikita egongo dira, indarreko legerian xedatutako baldintzak betetzeagatik, Plan honetan, hain zuzen ere bertan mugatutako Hirigintza Eremuen Arau Partikularretan, bere garapenean sustatu beharreko plangintza xehatua edo Hiritartzeko Jarduera Programan sartzen diren edota atxikitzen diren lurak.

B. Jarduketa mota horri atxikitako eremu bakoitzean dagokion Hiritartzeko Jarduera Programa gauzatu da.

C. Motibatzen duten arrazoiak zorroztasunez justifikatu eta azaldu ondoren, Programa izapidetzen denean, bere xede den eta aurretik hirigintza plangintzan mugatu den eremuaren mugapena birdoitzea proposatu eta onartu ahal izango da. Arrazoi horiek zerikusia izan dezakete dokumentu honen sustapena dela-eta eragindako, detektatutako eta/edo ezagututako lurren baldintza fisikoekin, titulartasunekoekin, etab.

Edozein kasutan, birdoitzearen egokitasuna indarreko hirigintza legerian xedatutako irizpideekiko egokitzapenaren behar bezalako balorazioaren eta justifikazioaren baitan egongo da.

D. Oro har, eremu horietan integratutako egikaritze unitateak lehen aipaturiko Programak mugatuko ditu. Mugapen horretan sartuko da aipaturiko unitateetan integratutako eta atxikitako lurren identifikazioa. Halaber, Programak finkatuko du egikaritze unitate bakoitzaren jarduketa sistema.

Edozein arrazoirengatik erabaki horiek guztiak hirigintza plangintzak hartutakoak badira, aipaturiko Programak birdoitu ahal izango ditu.

E. Kontuan hartu gabe planteatutako hirigintza antolamendua gauzatzeko zer jarduketa mota erabiltzen den, haren xede diren eremuan sartuta edo atxikita egongo dira, kasu bakoitzean eta euren ezaugarriak erreparatuta, tokiko hornidura publikoen estandarren arloko indarreko legerian xedatutako baldintzak betetzeko behar diren lurak, landaredia arloan aurreikusitakoa barne.

F. Aipaturiko irizpideak aplikatzearen ondoriozko egikaritze eremuak jarraituak edo etenak izan daitezke.

lan a las mismas bien en este Plan, bien en el planeamiento que se promueva en su desarrollo, bien en la fase de ejecución de la ordenación prevista en aquél y en éste, incluso complementaria o simultáneamente a la formulación y tramitación del correspondiente proyecto de edificación.

B. Siempre que, con el fin de acometer la ejecución de la ordenación planteada, se estime conveniente la formulación de un proyecto de reparcelación, se procederá a la previa delimitación de la unidad de ejecución que deba ser objeto de ese proyecto.

Su elaboración y aprobación, así como, en su caso, la del correspondiente proyecto de obras de urbanización, deberá ser previa a la del proyecto de edificación, así como a la concesión de la licencia municipal de edificación.

C. En el supuesto de que no resulte necesaria la elaboración y aprobación de los citados proyectos de reparcelación y de obras de urbanización, los deberes expuestos en el anterior artículo 23 de este Libro deberán ser cumplidos previa y/o simultáneamente a la concesión de la correspondiente licencia municipal de edificación.

4. Actuaciones integradas.

A. Se entenderán sujetos al régimen de las actuaciones integradas los terrenos que, por reunir los requisitos establecidos en la legislación vigente, se incluyan y/o adscriban a las mismas bien en este Plan, concretamente en las Normas Particulares de los Ámbitos Urbanísticos delimitados en él, bien en el planeamiento pormenorizado a promover en su desarrollo, o incluso en el propio Programa de Actuación Urbanizadora.

B. Cada uno de los ámbitos sujetos a ese tipo de actuaciones será objeto del correspondiente Programa de Actuación Urbanizadora.

C. Previa rigurosa justificación y exposición de las razones que lo motiven, con ocasión de la tramitación de dicho Programa se podrá plantear y aprobar el reajuste de la delimitación del ámbito objeto del mismo, delimitado previamente en el planeamiento urbanístico. Esas razones podrán estar relacionadas con los condicionantes físicos, de titularidad, etc. de los terrenos afectados, detectados y/o conocidos con ocasión de la promoción de ese documento.

En todo caso, la idoneidad de ese reajuste se entenderá condicionada, en cada caso, a la debida valoración y justificación de su adecuación a los criterios establecidos en la legislación urbanística vigente.

D. Con carácter general, las unidades de ejecución incluidas en dichos ámbitos serán delimitadas por el citado Programa. Esa delimitación incluirá la identificación de los terrenos tanto integrados como adscritos a las citadas unidades. De igual manera, el Programa determinará el sistema de actuación de cada unidad de ejecución.

En el supuesto de que, por cualquier circunstancia, todas o alguna de esas decisiones hayan sido sean adoptadas por el planeamiento urbanístico, podrán ser reajustadas por el citado Programa.

E. Cualquiera que sea el tipo de actuación mediante el que se ejecute la ordenación urbanística planteada, se entenderán incluidos o adscritos al ámbito objeto de la misma los terrenos necesarios para el cumplimiento, en cada caso y en atención a sus características, de los requisitos establecidos en la legislación vigente en materia de estándares de dotaciones públicas locales, incluido el previsto en materia de vegetación.

F. Los ámbitos de ejecución resultantes de la aplicación de los indicados criterios podrán ser bien continuos bien discontinuos.

G. Izaera orokorreko eta lokaleko hornidura publikotarako lurak lortzeko aipaturiko hirigintza legerian xedatutakoa bete beharko da.

Oro har, aipatu zuzkidurako lursailen hirigintza garapenak gauzatzeari dagokionez, lur horiek lagapenaren bidez eskuratuko dira.

Beharrezkoa den bakoitzean desjabetzea erabiliko da, bereziki xede horretarako lurak lehen aipaturiko ezein jarduketa motatan integratzen edo atxikitzen ez badira.

38. artikulua. Lurzoru urbanizagarri sektorizatuko hirigintza antolamendua gauzatzeko araubidea.

1. Lursail sailkatuetan lurzoru urbanizagarri sektorizatua gisa planteatutako hirigintza antolamendua Plan honetako Arau Partikularretan eta arau horietan sustatu beharreko garapen plangintzan xedatutakoaren arabera gauzatu da.

Testuinguru horretan eta ordenazio xehatuko mailarekin mugatu eta identifikatu dira jarduketa integratuko esparruak.

Esparru horietako bakoitza bertan txertatu behar diren lursailak eta berari atxiki beharrekoak osatuko dute, hain zuzen ere, Hiritartzeko Jarduera Programaren xede izan behar dutenek.

2. Motibatzen duten arrazoiak zorroztasunez justifikatu eta azaldu ondoren, Programa izapidetzen denean, bere xede den eta aurretik hirigintza plangintzan mugatu den eremuaren mugapena birdoitzea proposatu eta onartu ahal izango da. Arrazoi horiek zerikusia izan dezakete dokumentu honen sustapena dela-eta eragindako, detektatutako eta/edo ezagututako lurren baldintza fisikoekin, titulartasunekoekin, etab.

Edozein kasutan, birdoitzearen egokitasuna indarreko hirigintza legerian xedatutako irizpideekiko egokitzapenaren behar bezalako balorazioaren eta justifikazioaren baitan egongo da.

3. Oro har, unitateak lehen aipaturiko Programan mugatuko dira. Mugapen horretan sartuko da aipaturiko unitateetan integratutako eta atxikitako lurren identifikazioa. Halaber, Programak finkatuko du egikaritze unitate bakoitzaren jarduketa sistema. Edozein arrazoiengatik erabaki horiek guztiak edo bakarren bat hirigintza plangintzak hartutakoak badira, aipaturiko Programak birdoitu ahal izango ditu.

4. Aurreko atalean xedatutakoaren kalterik gabe, izaera orokor eta lokaleko hornidura publikotarako lurak lortzeko, aipaturiko hirigintza legerian xedatutakoa bete beharko da eta desjabetze bidez jokatuko da beharrezkoa dela uste den bakoitzean, batik bat jarduketa integratuko eremuetan sartuta edo horiei atxikita ez badaude.

39. artikulua. Lurzoru Urbanizaezinean plangintza gauzatzeko araubidea.

1. Hornidura publikotarako lurak lortzea.

Oro har, eta indarreko legerian xedatutako irizpideen arabera beste tratamendu mota baten xede izan litezkeen salbuespenen kalterik gabe, bai Plan Orokor honetan, bai plangintzan eta bai horren garapenean egiten diren proiektuetan lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako eta hornidura publikotara zuzendutako lurak desjabetze bidez lortuko dira.

G. A los efectos de la obtención de terrenos destinados a dotaciones públicas de carácter general y local se estará a lo establecido en la citada legislación urbanística.

Con carácter general, dicha obtención será formalizada mediante cesión en el contexto de la ejecución de los desarrollos urbanísticos a los que se vinculan los citados terrenos dotacionales.

Se actuará mediante expropiación siempre que se considere necesario, en particular si los terrenos objeto de ese destino no se integran y/o adscriben a ninguno de los tipos de actuación antes mencionados.

Artículo 38. Régimen de ejecución de la ordenación urbanística en el suelo urbanizable sectorizado.

1. La ejecución de la ordenación urbanística planteada en los terrenos clasificados como suelo urbanizable sectorizado se ajustará a lo dispuesto tanto en las correspondientes Normas Particulares de este Plan, como en el planeamiento de desarrollo a promover en los mismos.

En ese contexto y siempre con el rango propio de la ordenación pormenorizada, se delimitarán e identificarán los correspondientes ámbitos de actuación integrada.

Cada uno de esos ámbitos estará conformado tanto por los terrenos que se deban integrar en él como por los que, en su caso, hayan de adscribirse al mismo, y que, en conjunto, deban ser objeto del correspondiente Programa de Actuación Urbanizadora.

2. Previa y rigurosa justificación y exposición de las razones que lo motiven, con ocasión de la tramitación de dicho Programa se podrá plantear y aprobar el reajuste de la delimitación del ámbito objeto del mismo, delimitado previamente en el planeamiento urbanístico. Esas razones podrán estar relacionadas con los condicionantes físicos, de titularidad, etc. de los terrenos afectados, detectados y/o conocidos con ocasión de la promoción de ese documento.

En todo caso, la idoneidad de ese reajuste se entenderá condicionada, en cada caso, a la debida valoración y justificación de su adecuación a los criterios establecidos en la legislación urbanística vigente.

3. Con carácter general, las correspondientes unidades serán delimitadas en el citado Programa. Esa delimitación incluirá la identificación de los terrenos tanto integrados como adscritos a las citadas unidades. De igual manera, el Programa determinará el sistema de actuación de cada unidad de ejecución. En el supuesto de que, por cualquier circunstancia, todas o alguna de esas decisiones sean adoptadas por el planeamiento urbanístico, podrán ser reajustadas por el citado Programa.

4. Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior, a los efectos de la obtención de terrenos destinados a dotaciones públicas de carácter general y local se estará a lo establecido en la citada legislación urbanística, y se actuará mediante expropiación siempre que se considere necesario, en particular si los mismos no se integran en ámbitos de actuación integrada o se adscriben a ellos.

Artículo 39. Régimen de ejecución del planeamiento en el suelo no urbanizable.

1. Obtención de terrenos destinados a dotaciones públicas.

Con carácter general, y sin perjuicio de las excepciones que, en su caso y de conformidad con los criterios establecidos en la legislación vigente pudieran ser objeto de otro tipo de tratamiento, los terrenos clasificados como suelo no urbanizable y destinados a dotaciones públicas, tanto en este Plan General como en el planeamiento y en los proyectos que se formulen en su desarrollo, se obtendrán mediante expropiación.

2. Lurzoru urbanizaezineko partzelazioak.

A. Oro har, lurzoru urbanizaezinean kokatutako lursailen partzelazio edo segregazioek dagokien udal lizentzia lortu beharko dute aurretik. Udal lizentzia gaiaren inguruko indarreko legerian, Plan honetan eta plan horren garapenean egiten den plangintza berezian xedatutako irizpide eta gainerako baldintzetara egokitu beharko da.

B. Eraikuntza, erabilera eta jarduera baimenduak zenbait eremu eta lurretan ezartzeko, kasu bakoitzean eskatzen den gutxieneko lursaila izateko baldintza bete beharko du. Lursaila aipaturiko eraikuntza eta erabilerei lotuta geratuko da xede guztietarako –erregistroa, etab.–.

C. Edozein delarik euren helburua, Plan hau onartu ondoren egin nahi diren segregazioek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

* Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapen erabilerei edo baso erabilerei lotutako lursailak, horien erabilera osagarriak barne, espazioan eteten diren lursailak osatutakoak izan daitezke. Nolanahi ere, erabilera horien eta erabilera horiei lotutako eraikuntza eta instalazioen ezarpena espazio jarraitutasuneko zenbait baldintza betetzearen baitan badago, haiei lotutako lurren segregazioa baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen denean soilik baimendu ahal izango da.

* Aipaturiko lurzoruan baimendutako erabilerekin lotutako lursailak jarraitutasuna izan behar dute, gutxienez, Plan honetan, bere garapenean formulatzen den plangintzan edo horretarako baimena ematen den unean xedatutako gutxieneko baldintzak betetzeko behar den zatian, bai haiei lotu beharreko lurren azalerari nahiz beste kontu batzuei dagokienez. Eremu jarraitu horretan kokatu beharko da baimendutako eraikuntza edo instalazioa.

D. Ezin izango dira gauzatu euren azalera Plan honetan araututako gutxieneko azalaren mugaren azpitik uztea eragiten duten erabilera eta/edo eraikuntza baimenduei lotutako lursailen segregazioak. Aurrekoak baino azalera handiagoko mugen murrizketa eragiten duten segregazioak ere ezin izango dira gauzatu, baldin eta haien baimena izaera orokorarekin xedatutako gutxieneko azalera baino handiagoko lurrekin lotura izatearen baitan badago.

E. Plan Orokor hau onartu baino lehen eraikitako eraikinei atxikita dauden eta kasu bakoitzean aplikatu daitezkeen gutxieneko lursailaren edo eraikitako hirigintza eraikigarritasunerako behar den lursailaren baldintzak betetzen ez dituzten lursailak kasu bakoitzean baimendutako egoeran finkatzen dira. Proiektu honetan baimendutako erabilerak ezarri ahal izango dira eraikin horietan. Lursail horietan, ordea, ezin izango da segregaziorik egin.

F. Plan hau onartu eta indarrean sartu ondoren lurzoru urbanizaezinean egiten diren segregazioak, artikulua honetan xedatutakoaren aurka, ez gauzatutakotzat joko dira eraikuntza eta erabilera baimenduak ezartze aldera. Horregatik, eskatzaileak bakar gisa jarri beharko du jatorrizko lursail nagusia edo, baimena izateko aukera badu, partzelazio lizentzia eskatu beharko du aurretik, Plan Orokor honetan xedatutakoaren arabera.

2. Parcelaciones en suelo no urbanizable.

A. Con carácter general, las parcelaciones o segregaciones de fincas situadas en suelo no urbanizable estarán sujetas a la obligación de la previa obtención de la correspondiente licencia municipal. Esta deberá ajustarse a los criterios de división y demás condiciones establecidas tanto en la legislación vigente en la materia, como en este Plan y en el planeamiento especial que, en su caso, se formule en su desarrollo.

B. La implantación de las edificaciones, usos y actividades autorizados en las diversas zonas y terrenos, requerirá la cumplimentación de la condición de aportación de la parcela mínima exigida en cada caso. Dicha parcela quedará a todos los efectos –registrales, etc.– vinculada a las citadas edificaciones y usos.

C. Cualquiera que sea el fin de las mismas, las segregaciones que pretendan efectuarse con posterioridad a la aprobación de este Plan, deberán cumplimentar y ajustarse a los siguientes requisitos:

* Las parcelas vinculadas a usos de explotación agropecuaria o a usos forestales, incluidos los usos auxiliares de los mismos, podrán estar configuradas por terrenos espacialmente discontinuos. En todo caso, siempre que la implantación de algunos de esos usos, así como de las edificaciones e instalaciones asociadas a los mismos, se condicione a la cumplimentación de determinadas condiciones de continuidad espacial, la segregación de los terrenos vinculados a ellos sólo será autorizable en el supuesto de acreditarse la cumplimentación de dichas condiciones.

* Las parcelas vinculadas a otros usos autorizados en el citado suelo deberán constituir un todo espacialmente continuo, cuando menos en la parte necesaria para la cumplimentación de las condiciones mínimas establecidas bien en este Plan, bien en el planeamiento que se formule en su desarrollo, bien en el momento de su específica autorización, en lo referente tanto a la superficie de los terrenos a vincular a los mismos como a otras cuestiones. En ese ámbito espacialmente continuo deberá enclavarse, en su caso, la correspondiente edificación o instalación autorizada.

D. No podrán efectuarse segregaciones de fincas vinculadas a usos y/o edificaciones autorizados que impliquen la reducción de su superficie por debajo de los límites de superficie mínimos regulados en este Plan a los efectos de su implantación. Y tampoco segregaciones que impliquen la reducción de límites de superficie superiores a los anteriores siempre que la autorización de aquellos hubiese sido condicionada a la vinculación a los mismos de superficies de terrenos superiores a las mínimas establecidas con carácter general.

E. Las fincas adscritas a edificaciones construidas con anterioridad a la aprobación de este Plan General, que incumplan las condiciones de parcela aportada mínima aplicables en cada caso, o, la de parcela aportada necesaria en relación a la edificabilidad urbanística construida, se consolidan en el estado autorizado en cada caso. En esas edificaciones podrán implantarse los usos autorizados en este proyecto. Ahora bien, dichas parcelas no podrán ser objeto de segregaciones.

F. Las segregaciones que se realicen en el suelo no urbanizable con posterioridad a la aprobación y entrada en vigor de este Plan, en contra de lo dispuesto en este artículo se tendrán por no realizadas a efectos de la implantación de construcciones y usos autorizados, por lo que el peticionario deberá aportar como única la finca matriz originaria, o, en el caso de que la misma sea autorizable, solicitar previamente licencia de parcelación de acuerdo con lo establecido en este Plan General.

5. KAPITULUA. URBANIZAZIOA GAUZATZEA

40. artikulua. *Urbanizazio lanen proiektuak.*

Kasu bakoitzean egin beharreko urbanizazio lanak hiri-gintza plangintzan xedatutako aurreikuspenen garapenean honako proiektuetakoren batean zehazten direnak izango dira:

1. 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 194. artikuluan araututako urbanizazio proiektuak.

2. Urbanizazio lanen proiektu osagarriak, aipaturiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 195.1. artikuluan araututakoak, jarduketa isolatuetan behar diren urbanizazio lanak zehazteko asmoz sustatutakoak.

3. Aipaturiko Legearen 195.2. artikuluan araututako gainerako obra proiektuak.

Plan honetan edo bere garapenean sustatutako plangintzan mugatutako jarduketa integratuko eremuak eta/edo egikaritze unitateak, aurreko «1» atalean aipaturiko proiektuen xede izango dira, oro har.

Hornidura jarduketan xede diren eremuak, non zehaztu eta egin gabeko urbanizazio obrak dauden, aurreko «1» eta «2» ataletan aipatutako urbanizazio proiektuen edo urbanizazioko obra proiektu osagarrien xede izango dira, haien garrantziaren arabera.

Jarduketa isolatuen xede diren eremuak, non zehaztu eta egin gabeko urbanizazio obrak dauden, aurreko «2» atalean aipatutako urbanizazioko obra proiektu osagarrien xede izango dira.

Obra publikoak, hain zuzen ere, sistema orokor eta lokalen sarean integratutako hornidura publikoak lehen aipaturiko edozein proiekturen bitartez zehaztu eta landu ahal izango dira.

Testuinguru horretan, «3» atalean aipatutako proiektuak sustatu ahal izango dira aipaturiko obra eta/edo hornidurak jarduketa integratuko eremuetan eta/edo egikaritze unitateetan txertatzen badira, baldin eta bere ezaugarriek eta izaerak euren tratamendu berezitua justifikatzen badute eremu horietarako aurreikusitako gainerako urbanizazio obretatik berezita.

Bide-azpiegitura berrien proiektuak Ingurumenaren Eraginarekin Baterako Ebaluazioaren Azterketaren menpe egongo dira, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearekin bat etorriz. Azterketa horren bidez, aplikatu beharreko neurri babesleak eta zuzentzaileak finkatuko dira.

41. artikulua. *Antolamendua egokitzeko mugak urbanizazioko obra proiektuen arabera.*

Aurreko atalean aipatutako urbanizazioko obra proiektuek espazio libretarako, komunikaziotarako eta zerbitzu azpiegituretarako hornidura elementuen antolamenduko konfigurazioa, lerrokadurak eta sestrak birdoitu ahal izango dituzte eta, behar izanez gero, hiri lurlean eta lurzoru urbanizagarrian plangintzak hornidura horietarako xedatutako zonabandak zehaztu eragingo diote, hurrengo atalean jasotako salbuespenekin. Zentzu horretan, plangintzan zehaztutako zerbitzutarako azpiegitura sarean trazadura eta ezaugarrien definizioa adierazgarria dela ulertuko da eta, horregatik, haiek behin betiko zehaztea, gauzatzekotan ere, urbanizazioko obra proiektuen bitartez gauzatu da.

CAPITULO 5. EJECUCIÓN DE LA URBANIZACIÓN

Artículo 40. *Proyectos de obras de urbanización.*

Las obras de urbanización a ejecutar en cada caso serán las que, en desarrollo de las previsiones establecidas en el planeamiento urbanístico, se definan en alguno de los proyectos siguientes:

1. Proyectos de urbanización regulados en el artículo 194 de la Ley de Suelo y Urbanismo, de 30 de junio de 2006.

2. Proyectos de obras complementarias de urbanización, regulados en el artículo 195.1 de la citada Ley de Suelo y Urbanismo, promovidos con el fin de determinar las obras de urbanización necesarias, en su caso, en las actuaciones aisladas.

3. Restantes proyectos de obra regulados en el artículo 195.2 de la referida Ley.

Los ámbitos de actuación integrada y/o las unidades de ejecución delimitados en este Plan o en el planeamiento promovido en su desarrollo, serán objeto, con carácter general, de los proyectos mencionados en el anterior apartado «1».

Los ámbitos objeto de actuaciones de dotación con obras de urbanización pendientes de determinación y ejecución serán objeto, en atención al alcance de las mismas, bien de proyectos de urbanización bien de proyectos de obras complementarias de urbanización, mencionados en los anteriores apartados «1» y «2».

Los ámbitos objeto de las actuaciones aisladas con obras de urbanización pendientes de determinación y ejecución serán objeto de los proyectos de obras complementarias de urbanización mencionados en el anterior apartado «2».

Los obras públicas y, en concreto, las dotaciones públicas integradas en la red de sistemas generales y locales podrán ser definidas y tratadas mediante cualesquiera de los proyectos mencionados anteriormente.

En ese contexto, los proyectos mencionados en el apartado «3» podrán ser promovidos incluso en el supuesto de que las citadas obras y/o dotaciones se integren en ámbitos de actuación integrada y/o unidades de ejecución, siempre que sus características y naturaleza justifiquen su tratamiento diferenciado, disociado de las restantes obras de urbanización previstas en dichos ámbitos.

Los proyectos de nuevas infraestructuras viarias se someterán al procedimiento de Evaluación de Impacto Ambiental que corresponda según la Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del Medio Ambiente del País Vasco, a través del cual se determinarán las medidas protectoras y correctoras que deban aplicarse.

Artículo 41. *Límites de adaptación de la ordenación por los proyectos de obras de urbanización.*

Los proyectos de obras de urbanización mencionados en el artículo anterior podrán reajustar la configuración, alineaciones y rasantes de ordenación de los elementos dotacionales destinados a espacios libres, comunicaciones, e infraestructuras de servicios, afectando, si fuese necesario, en los suelos urbano y urbanizable, a la zonificación pormenorizada establecida por el planeamiento para dichas dotaciones, con las salvedades expuestas en el siguiente apartado. En este sentido, se entenderá expresamente, que la definición de trazados y características de las redes de infraestructuras de servicios definidas en el planeamiento tienen carácter indicativo, por lo que la definitiva concreción de los mismos se producirá en todo caso a través de los correspondientes proyectos de obras de urbanización.

Hiri lurrean eta lurzoru urbanizagarrian, aurreko atalean aurreikusitako birdoitzeak ezin izango dira hedatu lursail erai-kigarrietako eta espazio libre konputagarrietako zonabanatze xehatura. Ez dira ezarriko plangintzan aurreikusita ez dauden bideko elementuen irekieran eta ezta haien ezabatzean ere.

Bide komunikazioko sistema orokorrari eta lokalari dago-kienez, urbanizazioko obra proiektuek kasu bakoitzean erabil daitekeen mugikortasun modu desberdinetara (oinezkoak, bizi-kletak, autoak) zuzendutako espazio espezifikoak identifikatu ahal izango dituzte dagokion bide zerrendaren barruan eta baita espazio horietako bakoitzaren tratamendu berezia ere. Horrek ez du aldatuko hirigintza antolamendua, bere zeregina aipatu-tako bide zerrenda identifikatzea baita, oro har.

42. artikulua. Urbanizazio lanen gutxieneko baldintza teknikoak.

Urbanizazioko obra proiektuak hirigintza plangintzako eta Ordenantza Orokorrerako indarreko legezko xedapenetan fin-katutako irizpideetara eta baldintza tekniko eta materialetara egokituko dira.

Urbanizazioko obra proiektuek Arau hauetako seigarren tituluan eta zazpigarren tituluko 4. kapituluan xedatutako edu-kiak aintzat hartuko dituen ikuskapen, zaintza eta informazio programa izan behar dute. Obra zuzendaritzak programa hori betetzen dela justifikatu beharko du, udalak urbanizazioa har-zeko nahitaezko baldintza baita hori.

Behar adina espezifikazio egin ezean, udal zerbitzu tekni-koek kasu bakoitzean aplika daitezkeen baldintzak zehaztuko dituzte udal sustapen zuzeneko obretan erabili ohi diren kalitate estandarrekin bat etorri eta obren sustatzaileak horretarako gidalerroak eskatu beharko ditu proiektua egiteko lanei ekin aurretik.

Proiektuen eduki formala aipaturiko legezko xedapenetan eta Ordenantza Orokorreretan finkatutakora egokituko da eta planteatutako proposamenen ondoriozko urbanizazioko kotak eta sestrak koordinatu digitalizatu egokien bitartez planteatu beharko dira.

6. KAPITULUA. ERAIKUNTZA GAUZATZEA

43. artikulua. Hiri lurrean eraikitzea.

1. Eraikuntzaren lerrokadurak eta sestrak zehazteko eska-kizuna.

— Ezin izango dira inolaz ere eman hiri lur gisa sailkatu-tako Hirigintza Eremuetan sartutako lurretan eraikuntza berriak egiteko lizentziak, baldin eta proposamenak gauzatzeko nahi-taezko baldintza bada plangintza xehatua edo xehetasun azter-keta egitea.

Baldin eta dagokion Arau Partikularrean irizpide murriztai-leagoak ezartzen ez badira, aipaturiko garapen plangintza for-mulatzea aurreikusten den eremuetan aurretik dauden eraikun-tzek udal lizentzia behar izan dezakete behar bezalako segurtasun eta osasungarritasun baldintzetan erabili eta man-tenzeko behar diren lanak egiteko eta jarduerak mantentzeko. Nolanahi ere, obra eta/edo jarduera horiek eremurako finkatu-tako hirigintza araubidearekin bat badatoz soilik emango da baimena eta, edozein kasutan, behin-behineko erabilerak bai-mentzeko indarreko legerian xedatutako baldintzetara egoki-tuko da.

En los suelos urbano y urbanizable, los reajustes previstos en el apartado anterior no serán extensibles a la zonificación pormenorizada de las parcelas edificables ni de los espacios libres computables. Igualmente no se establecerán ni en la aper-tura ni en la eliminación de elementos de vialidad no previstos por el planeamiento.

En relación al sistema tanto general como local de comuni-cación viaria, los proyectos de obras de urbanización podrán identificar los espacios específicos destinados dentro de la correspondiente banda viaria a los distintos modos de movili-dad (peatonal, ciclista, rodada) susceptibles de ser utilizados en cada caso, así como el tratamiento singular de cada uno de esos espacios, sin que eso conlleve alteración alguna de la ordena-ción urbanística, cuya labor queda circunscrita en términos generales a la identificación de la citada banda viaria.

Artículo 42. Condiciones técnicas mínimas de las obras de urbanización.

Los proyectos de obras de urbanización se ajustarán a los criterios y a las condiciones técnicas y materiales establecidos en las disposiciones legales vigentes en el planeamiento urba-nístico, y en las Ordenanzas Generales.

Los proyectos de obras de urbanización deberán incluir un programa de supervisión, vigilancia e información que res-ponda a los contenidos establecidos en el Título sexto y Capítulo 4 del Título séptimo de las presentes Normas, cuyo cumplimiento deberá justificarse por la dirección de obra como condición necesaria para la recepción de la urbanización por parte del Ayuntamiento.

En defecto de especificaciones suficientes, los servicios téc-nicos municipales podrán definir en cada caso las condiciones aplicables, de acuerdo con los estándares de calidad utilizados de manera habitual en las obras de promoción municipal directa, debiendo el promotor de las obras solicitar, con ante-rioridad al inicio de los trabajos de elaboración del proyecto, las directrices oportunas al respecto.

El contenido formal de dichos proyectos se adecuará asi-mismo a lo dispuesto en las referidas disposiciones legales y Ordenanzas Generales, debiéndose plantear las cotas y rasantes de la urbanización resultante de las propuestas planteadas, mediante las adecuadas coordenadas digitalizadas.

CAPITULO 6. EJECUCIÓN DE LA EDIFICACIÓN

Artículo 43. Ejecución de la edificación en suelo urbano.

1. Exigencia de la definición de alineaciones y rasantes de la edificación.

— En ningún caso podrán otorgarse licencias de nueva edi-ficación en terrenos incluidos en Ámbitos Urbanísticos clasifi-cados como suelo urbano en los que resulte necesaria la formu-lación de planeamiento pormenorizado o de un estudio de detalle, como condición previa a la ejecución de las propuestas correspondientes.

Salvo que en la correspondiente Norma Particular se esta-blezcan criterios más restrictivos, las edificaciones preexistentes en los ámbitos en los que se prevea la formulación del citado planeamiento de desarrollo podrán ser objeto de las correspon-dientes licencias municipales para la ejecución de obras e implantación de actividades necesarias para el uso y manteni-miento de las mismas en las debidas condiciones de seguridad y salubridad. En todo caso, su autorización sólo será posible si dichas obras y/o actividades son acordes con el régimen urba-nístico establecido en ese ámbito, y se adecuará en todo caso a los requisitos establecidos en la legislación vigente para la auto-rización de usos provisionales.

Testuinguru horretan, bizitegi erabileretarako baimena erabilera horietara zuzendu aurretik zeuden eraikinetara mugatuko da.

— Dagokien ordenazio xehatua duten lursailek hirigintza plangintzan zehaztuta izan behar dituzte fatxada guztien lerro-kadurak, garaierak, solairu kopurua eta eraikin hondoa eta baita lurzoru urbanizatuan eraikuntza bermatzeko sestrean kotak ere, dagozkien urbanizazio lanak egin ondoren orubetzat jo ahal izateko.

Udalak ukatu egingo du eraikitze lizentzia aipaturiko baldintza guztiak betetzen ez direnean eta aurretik xehetasun azterketa edo dauden hutsuneak betetzeko egokitzat jotzen den hirigintza dokumentua izapidetzea eskatuko da.

2. Hirigintzako eta onurak eta kargak banatzeko eskakizunak betetzea.

— Ezin izango da ez lizentzia eskatu eta ez eman jarduketa integratuen eta/edo egikaritze unitateen xede diren eremuetan dauden lursailetan eraikin berriak egiteko, harik eta, besteak beste, honako baldintza hauek betetzen ez diren bitartean:

a) Dagokion Hiritartzeko Jarduera Programa egin eta behin betiko onartzea.

b) Lursaila dagoen egikaritze unitatearen onurak eta kargak birbanatzeko proiektua egin eta behin betiko onartzea.

c) Kasu bakoitzean urbanizazio lanak finkatzeko eta gauzatzeko behar den proiektua egin eta behin betiko onartzea.

d) Urbanizazio lanak aurrez egitea, kasu bakoitzaren baldintza eta ezaugarriak erreparatuta, lan horiek eta eraikuntza-koak aldi berean egiteari egoki iriztearen kalterik gabe. Kasu horretan, aldi berean egiteko baimenari egokitzat jotzen dituen bermeak finkatzeko baldintza jar diezaioke udalak.

Harik eta baldintza horiek guztiak betetzen ez diren bitartean, lur eta lursailek orubetzat jotzeko behar diren baldintzak ez dituztela betetzen ulertuko da.

Ezin izango da ez lizentzia eskatu eta ez eman aurretik dagoen eraikigarritasun haztatua handitzea eragiten duten lanak egiteko, aurrekoen ordezkio eraikin berriak eraikitzea barne, eraikigarritasun haztatua handitzeagatik hiri lur finkatugabe gisa sailkatutako lursailetan, harik eta honako baldintza hauek betetzen ez diren bitartean:

a) Lursaila dagoen egikaritze unitatearen onurak eta kargak birbanatzeko proiektua behin betiko onartzea.

b) Kasu bakoitzean urbanizazio lanak finkatzeko eta egiteko behar den proiektua behin betiko onartzea.

c) Aurreko proiektuak egitea beharrezkoa ez den kasuan, Dokumentu honetako 23. artikuluan jasotako betebeharrak aurretik edo aldi berean betetzea, dagozkion berme eta abalak gordailuan uztea barne.

— Eraikuntza jarduketa isolatueta atxikitako eraikuntza berrietarako udal lizentzia ematea haiek zehaztu eta egiteko beharrezkoa den urbanizazioko obra osagarrien proiektua aurretik edo aldi berean egin eta onartzearen baitan egongo da.

En ese contexto, la autorización, en su caso, de usos residenciales se limitará a las edificaciones preexistentes previamente destinadas a esos usos.

— Las parcelas que cuenten con la correspondiente ordenación pormenorizada deberán tener definidas en el planeamiento urbanístico las alineaciones de todas sus fachadas, las alturas, el número de plantas y el fondo de edificación, así como cotas de las rasantes de apoyo de la edificación en el terreno urbanizado, para que, tras la ejecución, en su caso, de las correspondientes obras de urbanización, puedan ser consideradas como solares.

El Ayuntamiento denegará la concesión de licencia de edificación cuando esos requisitos no se cumplan íntegramente, exigiendo la tramitación previa bien de un estudio de detalle, bien del documento urbanístico que se estime adecuado para subsanar los vacíos existentes.

2. Cumplimiento de los requisitos de urbanización y distribución de beneficios y cargas.

— No podrá solicitarse ni concederse licencia para la ejecución de nuevas edificaciones en parcelas incluidas en ámbitos objeto de actuaciones integradas y/o unidades de ejecución en tanto se cumplan, entre otras, las condiciones siguientes:

a) Elaboración y aprobación definitiva del correspondiente Programa de Actuación Urbanizadora.

b) Elaboración y aprobación definitiva del proyecto de equidistribución de beneficios y cargas de la unidad de ejecución en la que se integre la parcela.

c) Elaboración y aprobación definitiva del proyecto necesario en cada caso para la determinación y ejecución de las obras de urbanización.

d) Ejecución previa de las correspondientes obras de urbanización, sin perjuicio de que, en atención a las condiciones y características de cada caso, se estime oportuna la ejecución simultánea de dichas obras y las de edificación. En este caso, el Ayuntamiento podrá condicionar la autorización de esa ejecución simultánea a la consignación de las garantías que estime convenientes.

En tanto no se cumplan todas esas condiciones, se entenderá que los terrenos y parcelas no reúnen las condiciones necesarias para su consideración como solares.

No podrá solicitarse ni concederse licencia para la ejecución de obras que impliquen el incremento de la edificabilidad ponderada preexistente, incluida la construcción de nuevas edificaciones en sustitución de las anteriores, en parcelas clasificadas como suelo urbano no consolidado por incremento de la edificabilidad ponderada en tanto se cumplan, entre otras, las condiciones siguientes:

a) Aprobación definitiva del proyecto de equidistribución de beneficios y cargas de la unidad de ejecución en la que, en su caso, se integre la parcela.

b) Aprobación definitiva de, en su caso, el proyecto necesario para la determinación y ejecución de las obras de urbanización.

c) Previa o simultánea cumplimentación de los deberes expuestos en el anterior artículo 23 de este Documento, incluido el depósito de las correspondientes garantías y avales, en el supuesto de no resultar necesaria la formulación de los proyectos anteriores.

— La concesión de licencia municipal para la construcción de nuevas edificaciones sujetas a actuaciones aisladas se entenderá condicionada a la previa o simultánea elaboración y aprobación del proyecto de obras complementarias de urbanización que, en su caso, resulte necesario para la determinación y ejecución de las mismas.

Oro har, aipaturiko urbanizazio lanak eraikuntzako enburekin egingo dira. Nolanahi ere, kasu bakoitzaren baldintza eta ezaugarriak erregulatu, udalak urbanizazio eta eraikuntza obrak aldi berean egiteko baimena eman dezake, komenigarritzat jotzen dituen bermeak esleitzeko baldintzarekin.

3. Lizentzia eskatzeko eta eraikuntza hasi eta bukatzeko epeak.

— Egikaritze unitateetan eta/edo jarduketan integratuko eremuetan sartzen ez diren lursail eraikigarrien kasuan, proiektatutako eraikuntza berriak egiteko lizentzia eskatzeko eta obrak hasteko epea bi (2) urtekoa izango da dagokion ordenazio xehatua onartzen denetik kontatzen hasita.

— Jarduketa integratuen xede diren eremuetan sartzen ez diren egikaritze unitateetan kokatutako lursail eraikigarrien kasuan, lizentzia eskatzeko eta eraikuntza hasteko epea bi (2) urtekoa izango da onura eta kargen birbanaketa proiektua onartzen denetik kontatzen hasita.

— Jarduketa integratuen xede diren eremuetan dauden egikaritze unitateetan kokatutako lursail eraikigarrien kasuan, lizentzia eskatzeko eta eraikuntzari hasiera emateko epea kasu bakoitzean Hiritartzeko Jarduera Programan finkatutakoa izango da.

— Lursail industrialen kasuan, epeak enpresa koiunturara egokitu ahal izango dira.

— Baldin eta aurrez zehaztuta ez badaude, proiektatutako eraikuntzaren obrak hasierako, gehienezko etenaldiko eta amaierako epeak udal lizentzia ematen den unean finkatu ahal izango dira.

— Epe horiek eraikuntzaren osagarri gisa eta aldi berean egin behar diren urbanizazio lanen arabera finkatuko dira.

— Bestalde, baldin eta plangintza xehatua egitea erabakitzen bada, plangintza horrek finkatuko du lizentziaren eskaeratik egiteko epea eta, hala dagokionean, proiektatutako eraikuntzak hasi eta bukatzekoa.

4. Hiri lur gisa sailkatuta dauden eta plangintza berezia egitea aurreikusten den eremuetan lehendik dauden eraikinetan lanak egitea eta jarduerak gauzatea.

— Oro har, dagokion plan berezia egin eta onartzen ez den bitartean, aipatutako eremuetan lehendik dauden eraikuntzek, baldin eta adostu zirenean indarrean zegoen hirigintza antolamenduan xedatutakoaren arabera eraiki baziren, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen «101-3.c» artikuluan aipatzen diren lehendik dauden eraikuntzen izaera izango dute.

— Plan berezia onartzen ez den bitartean, aipatutako eraikuntzetan ezin izango da egin ordeztzeko, altxatzeko, handitzeko edo hirigintza aprobetxamendua handitzeko obrarik. Mantentzeko, kontserbatzeko eta beraietan erabilerak eta jarduerak garatzeko behar diren lanak egin ahal izango dira eta 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 36. eta 37. artikuluetan aipatutako erabilerak ezartzeko baimena eman ahal izango da beraietan araututako behin-behinekotasun baldintzetan.

5. Sistema orokorren sareko hornidura publikoak garatea eta gauzatea.

